

Lehen hezkuntzako umeeetan

LEHEN SOROSPENAK IRAKASTEKO OSASUN PROGRAMA *sorostxiki*



GRADU AMAIERAKO LANA

Egilea: Leire Ruiz-Olalla Salazar

Lekua: Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskola

Hitz kopurua: 7.380

Data: 2021/05/03

AURKIBIDEA

1. Sarrera	5
2. Marko teorikoa eta justifikazioa	6
3. Programaren helburuak.....	12
1. Xedea	12
2. Helburu orokorra	12
3.3 Bitarteko helburuak	12
4. Metodologia pedagogikoa	13
5. Programaren diseinua	16
1. Biztanleriaren definizioa	16
2. Hedatzeko eta erakartzeko estrategiak eta saioak	16
3. Besteak	18
4. Saioen eskema	19
5. Hezkuntza saioen garapena	21
5.5.1 1.saioa: AURKEZPENA: NORTZUK GARA?	21
5.5.2 2.saioa: LEHEN SOROSPENAK IKASTEN	25
5.5.3 5.saioa: AZKEN BULTZADA	28
5.5.4 6.saioa: SOROSTXIKIA NAIZ	31
6. Programaren aurrekontua	33
7. Programaren ebaluazio-plana.....	35
6. Bibliografia.....	36
7. Eranskinak.....	39
1. Eranskina. Kontzeptu taula	39
2. Eranskina. Bilaketa taula	41
3. Eranskina. Fluxu diagrama	47
4. Eranskina. Ikerketa artikuluen irakurketa kritikoa	48
5. Eranskina. Laburpen taulak	55
6. Eranskina. Sorostxiki kartela.....	64
7. Eranskina. Triptikoa	65
8. Eranskina. Excel	67
9. Eranskina. Umeentzako pegatinak	68
10. Eranskina. Komiki istorioak.....	69
11. Eranskina. Eskape room galderak	80
12. Eranskina. Puzzlea	81
13. Eranskina. Kahoot.....	82
14. Eranskina. Kahooterako kartoia.....	85
15. Eranskina. 3. saioa LEHEN SOROSPENAK MAITATZEN.....	86
16. Eranskina. Prezi	88
17. Eranskina. Egia/gezurra kartelak	95

18. Eranskina. 4. saioa AUPA LEHEN SOROSPENAK	96
19. Eranskina. Simulakro jarduerarako ur txorrota	99
20. Eranskina. Murala	99
21. Eranskina. Muralerako testutxoak.....	100
22. Eranskina. Lehen sorospen Ppt-a.....	100
23. Eranskina. Test-a.....	114
24. Eranskina. Haurren asetze mailarako galderak.....	116
25. Eranskina. Sorostxiki pegatina.....	116
26. Eranskina. Diploma.....	117
27. Eranskina. Irakasleentzako asetze maila (Google formularioa)	118

1. SARRERA

Mundu mailan zauri istripuak umeen heriotzen kausa nagusia diren bitartean, Espainia mailan gaixotasun kardiakoek eragindako bihotz-geldialdiek heriotza gehiegi eragiten dituzte. Bai zauri istripuak bai bihotz-arnas geldialdiak, beraz, geroz eta garrantzi handiagoa dutela argi dago.

Hilkortasun tasak jaisteko dauden aukerak ospitaletik kanpo ematen diren interbentzioei dagokie. Izan ere, bihotz-geldialdi gehienak ospitaletik at gertatzen dira. Hau frogatu den arren, biztanleria orokorrari egindako ikerketen arabera, pertsona gehienak ezagutza eta formakuntza urria daukate halako egoera baten aurrean erantzuteko. Hori gutxi balitz, emergentzia kasu batzuetan umeak dira lehenengo lekukoak.

Hori dela eta, ikertzaile ugari bat datoz lehen sorospenak lehen hezkuntza nahita nahiez irakatsi beharko lirakekeela. Horrez gain, Munduko Osasun Erakundeak (MOE), 12 urtetik beherako haurrei lehen sorospenak irakastea gomendatzen du. Euskal Autonomia Erkidegoan, esaterako, 236/2015 Dekretuak, umeek lehen sorospenen ezagutzak bereganatu behar dituztela aitortzen du.

Horretarako, erizainak bideratuta, osasun-hezkuntza programa bat burutuko da, lehen hezkuntzako 2., 4. eta 6. mailako umei lehen sorospenen inguruko ezagutzak, jarrerak eta trebetasunak irakasteko asmoz. Programan zehar, hezkuntza material ezberdinak erabiliko dira lagungarri gisa.

Osasun programa honi esker, biztanleria zabalagoari formakuntza eta ezagutzak helarazteaz gain, (saihestu daitezkeen) heriotza kopurua jaistea lortu nahi da. Aldi berean, umeek osasunarekin eta besteei laguntzearekin erlazionatutako ezagutzak, jokabideak eta trebetasunak eskuratzea espero da.

2. MARKO TEORIKOA ETA JUSTIFIKAZIOA

Honela definitzen ditu lehen sorospenak Gurutze Gorriak: 'istripua jasan duen edo bat-batean gaixotu den pertsonari lehenengo zainketak ematean datza, laguntza burutu ahal duen osasun taldea etorri arte'¹.


“RCP básica y Primeros Auxilios” gidak aldiz, lehen sorospenak hurrengo moduan azaltzen ditu: “laguntzaileak gertaera lekuan ematen dituen neurriak, asistentzia, ekintzak edo hasierako tratamenduak zaurituari edota bat-bateko gaixotasuna pairatzen duen pertsonari, inprobisatutako materiala erabiliz osasun taldea etorri arte”. Kontuan hartu behar da ere, ematen diren sorospenak ez direla tratamendu medikuak, baizik eta emergentzia egoeretan burutzen diren ekintzak¹.

Bestalde, Munduko Osasun Erakundeak (MOE) istripuaren definizioa ematen du. Bere esanetan, “gizakiaren borondatearekin loturirik ez duen gertaera da, indar arrotz batengatik eraginda, jarduera azkarrekoa eta lesio organikoen edo nahasmen mentalen agerpenekin azaleratzen dena”. Horren harira, saihestezina den gertaera baten aurrean, MOEk 'zauri istripu' terminoa erabiltzea gomendatzen du, kasu horietan ez baita esku-hartzerik ematen. Hau dela eta, zauri istripuaren kontzeptua erabiliko da^{2,3}.

Epidemiologiari dagokionez, gaur egun zauri istripuak umeen arteko osasun arazo garrantzitsu bilakatu dira^{4,5,6}. MOE-k eta Haurren Laguntzarako Nazio Batuen Funtsak (UNICEF, alegia) garatutako Haurren Lesioak Saihesteko Munduko Lehenengo Txostenaren arabera, lesioak umeen heriotzen kausa nagusiak dira. Izan ere, umeetan zein 18 urte baino gutxiagoko gazteetan, urtean 950.000 heriotz inguru sortzen dituzte, horien %90-aren kausa zauri istripuak izanik³.


Espainiako Osasun Ministerioak argitaratutako datuen arabera, honako hauek dira umeen heriotzak eragiten dituzten zauri istripu ohikoenak: trafiko istripuak, objektu arrotzen ondoriozko nahiz urpean ematen diren itolarriak, erorketak, erredurak eta intoxikazioak^{2,3,7} (1.grafika).

1. Grafika: Umeen heriotza sortzen dituzten zauri istripu nagusiak



Iturria: norberak burututakoa, datuak Espainiako Osasun Ministeriotik hartuta⁷.

2018. urtean, Nazioarteko Estadistika Institutuaren (INE) datuen arabera, Espainian, 227 haur eta 11.217 heldu hil ziren zauri istripu desberdinen ondorioz. Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) aldiz, guztira zauri istripu desberdinen ondorioz 548 heriotz jazo ziren⁸ (2. grafika).



Iturria: norberak burututakoa. Datuak INE-tik hartuta⁸.

Bestalde, bihotz geldialdiak sortutako heriotzak geroz eta garrantzi handiagoa dauka mundu mailan⁹. Izan ere, helduen arteko heriotza-kausa nagusia bihotz gaixotasunek eragindako bat-bateko bihotz geldialdia da¹⁰. Espainian, 20 minuturo bat-bateko bihotz geldialdi bat jazotzen da¹¹.

2019. urtean EAE-n burututako ikerketa epidemiologikoen arabera, bihotz geldialdi baten ondorioz, asistentziarik gabeko eta beste arrazoi ezezaguneko 79 heriotza kasu jazo ziren, zirkulazio-sistemako gaixotasunak bigarren heriotza-kausa izanik¹².

Istripu eta bihotz geldialdi gehienak ospitaletik kanpo gertatzen direla kontuan hartu behar da, hala nola; etxean, lanean edo kalean^{10,13}. EAE-n, esaterako, urtero, 850 bihotz-arnas geldialdi inguru ematen dira ospitaletik at¹⁴. Hori gutxi balitz, egoera gehienetan lekukoak egoten dira, beraz, ospitaletik kanpo ematen diren istripuetan edo bihotz-arnas geldialdietan lagungarria izan daiteke oinezkoen esku-hartzea osasun profesionalak iristen diren bitartean^{9,10,15,16,17}.

Horrekin batera, bihotz-arnas geldialdiko denborak aurrera egin ahala, bihotz birika berpiztea (BBB) ondo ateratzeko aukerak jaisten dira¹⁸. Hori dela eta, lekukoek izugarritzko laguntza eskaini ahal dezakete lehen sorospenak burutuz gero^{13,19}. Modu honetan, ospitaletik kanpoko berehalako BBB-aren laguntzari esker, bihotz geldialdia pairatu duen pertsonari bizirauteko aukerak 2tik 4ra handitzeaz gain, bizi kalitatea hobetu diezaioke ere²⁰.

Aitzitik, pertsona asko hil egiten dira emergentzia egoeretan beharrezko lehen sorospenak ez jasotzeagatik¹⁶. Urtero Europan, gutxienez 700.000 pertsona hiltzen dira

arrakastarik gabeko bihotz-arnas geldialdien ondorioz¹⁰. Ospitaletik kanpo gertatzen diren bost bihotz geldialdietatik batean baino ez da BBB burutzen⁹.

Horren harira, Banfai et al.-ek Espainian burututako ikerketaren aburuz, istripuen lekukoak %15ak baino ez daki BBB egiten¹⁷. Gainera, biztanleriaren %30ak soilik BBB egiten dakiela aitortzen du¹. Aldiz, EAE-n egindako ikerketa baten arabera, soilik %20-ak bere burua gai ikusten du BBB-a burutzeko, eta %37-ak formakuntzaren bat jaso duela adierazten du¹⁷. Hortaz, biztanlerian ezagutza eta formakuntza falta dagoela antzeman daiteke.

Lehen sorospinak ez burutzeak, pertsonen heriotzaz gain, bestelako eragina izan dezake gizartean.

Alde batetik, lesioen artapenerako denbora eta materialaren beharrak, osasun baliabideetan gain, baliabide ekonomiko eta sozialetan ere eragina izan dezake^{5,21}. Gainera, lesioek mina, sufrimendua eta ezgaitasuna sor ditzakete pertsonen bizitzan zehar. Hori gutxi balitz, garapen fisikoan, psikikoan eta sozialean ere ondorio larriak eragin ditzake²¹.

Horrekin batera, askotan kaltea jaso duten pazienteen ondorengo eboluzioa lehendabiziko artapenaren menpe dago²². Halaber, pazienteek beraien bizi kalitatean eragina izan ditzaketen ondorio neurologiko garrantzitsuak aurkeztu ditzakete. Horrek ere, osasun sistemarentzat zein familiarrentzat zama handia suposa dezake, une oro norbaiten laguntza behar izaten dutelako²¹.

Bestalde, istripua pairatu duten pertsonak zein lekukoek izugarritzko egoera emozional eta estresagarria bizi ohi dute. Askotan, laguntza eskaini nahi izaten duten arren, ezinezkoa egiten zaie²². Izan ere, larrialdi egoera baten aurrean urduritasun handia aurkeztu daiteke egoera kudeatu jakiten ez bada. Modu horretan, ezagutza faltaren ondorioz, beraz, pertsona ugari modu desegokian jarduten dute emergentzia egoera baten aurrean^{16,23}.

Aurretik esan bezala, hilkortasun tasak jaisteko dauden aukerak ospitaletik kanpokoi dagokie. Gainera, emergentzia kasu batzuetan umeak dira lehenengo lekuak^{9,16,17}.

Hau guztia dela eta, zientzialari eta erakunde askok lehen sorospenen irakaskuntza zabaltzea aldarrikatzen dute⁹. Osasun heziketa programa (HP) batek espezializatua ez den biztanleria hezteko aukera emango luke, besteak beste. Modu horretan, ezagutza eta lehen sorospenen jarduera sustatzea lortuko litzateke¹¹.

Osasun heziketa programak osasunaren eta bizi kalitatearen hobekuntza lortzera bideratutako interbentzio terapeutikoak dira. Izan ere, burutu diren ikerketen arabera, osasun heziketa ezinbestekoa da osasunaren arloan jokabide aldaketak lortzeko²⁴.

Programa horietan arrakasta ziurtatzeko, partaideen beharren azterketa sakona egin behar da, horien ezaugarriak eta helburuak kontuan hartuz. Horrekin batera, garrantzitsua da

heziketa prozesuan zehar saioen arteko jarraitasuna bermatzea eta parte-hartzaileen adina kontuan hartzea²⁴.

2015. urtetik, MOEk eta International Liaison Committee on Resuscitation-ek (ILCOR) biztanleria osoak BBB-aren irakaskuntza eskuratzearen alde egin dute, eskola hasierako puntua izanik^{16,17}. *European Resuscitation Council (ERC)* eta *American Heart Association (AHA)* erakundeek ere eskoletan irakaskuntza programak ezartzearen alde apustu egiten dute. Hauek, eskoletan irakaskuntza programak ezartzea bideragarria ez ezik beharrezkoa dela ere uste dute⁹.

Izan ere, eskoletan lehen sorospenen irakaskuntza egiteak abantaila asko ditu. Alde batetik, umeek motibazio handiagoa izateaz gain, hezkuntzarako erantzun eta interes handiagoa dute ere. Horri esker, ekintza multzoak erraz ikasi eta erantzukizuna nahiz trebetasun sozialak etapa goiztiarrean garatzen hasi daitezke^{9,25,26}.

Beste alde batetik, eskolan HPk egiteak gizarte-talde guztiek eskuragarri izatea ahalbideratzen du, edozein klase sozialeko edo talde etnikoko pertsoneri horietan parte hartzeko aukera emanez^{9,10,11}.

Horren harira, Gurutze Gorriaren Nazioarteko Elkartearen arabera (*IFRC*), Espainiako eskoletan lehen sorospenak irakastea derrigorrezkoa da^{10,11}. Jarraian planteatzen den osasun hezkuntza programaren bitartez Dekretua beteko litzateke. Izan ere, otsailaren 28ko 126/2014 Errege-Dekretuaren arabera, eskolek lehen sorospenak irakastera behartuta daude²⁷. EAEn, bere aldetik, abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuak, oinarriko hezkuntzako kurrikuluma betetzeko, umeek lehen sorospenen ezagutzak bereganatu behar dituztela aitortzen du²⁸.

Norvegia, Suedia eta Danimarka bezalako herrialdeetako eskoletan lehen sorospenak irakasteko ekimenak martxan jarri dituzte, eta momentuz, emaitza onak lortzen dabilta¹⁰. Ordura arte, ekintza puntual batzuk baino ez dira burutu EAEn, eta ez da iparraldeko herrialdeetan bezalako programa trinkorik ezarri. OSI Araban, esaterako, 'Ume Sorosle' izeneko ekimena bertan behera utzi behar izan zuten oinarri finkorik ez izateagatik. Programa hau, Ume Soroslearekin alderatuz, ebidentzia zientifikoan oinarrituko litzateke, ebaluaketa bat izango luke eta modu egokituago batean eramatea ahalbidetuko luke.

Hezkuntza programaren bitartez, umeek trebetasunak lortzeaz gain, beste hainbat balio ere eskura ditzakete, beraien burua nola zaindu eta prebentzio argibideak barnerratz²⁵. Gainera, hainbat hezkuntza adituren aburuz, irakaskuntzak umeen banakako garapenean eta erresilientzian eragina izateaz gain, autoestimua, konfiantza eta enpatia hobetzeko nahiz eginkizun morala sustatzeko balio du^{9,11,17,18}.

Azkenean, trebetasun emozionalak, psikologikoak zein sozialak ikastea eta garatzea, fisikoak bezain garrantzitsuak dira. Horiei guztiei esker, emergentzia egoeretan jarduteko probabilitatea handitzen baita¹¹.

Esandako guztia kontuan hartuta, umeak hezkuntza programatik onura gehien lortzen dituztenak direla argi ikusi da, baina osasun sistema ere onuradun izan daiteke^{9,25}. Izan ere, ospitaletik kanpo BBB gehiago burutzea ez ezik, heriotza-tasak jaistea lortu daiteke ere^{11,15,25}. Modu horretan, bihotz geldialdia pairatutako pertsonen biziraupena igoko litzateke. Danimarkan, esaterako, 10 urteren buruan egindako ikerketa bati esker, ospitaletik at egindako BBB kopurua bikoiztea lortu zen, eta horri esker, bihotz geldialdia pairatu zuten pertsonen biziraupena hiru aldiz hobetu zuten⁹.

Gainera, eskoletan lehen sorospenen hezkuntza ematen den herrialdeetan berpizte maniobra tasa handiagoa dela ikusi da. Egindako ikerketa ezberdinek, berpizteen emaitzak gora egiteko, gutxienez biztanleriaren %15ak trebakuntza jaso beharko luketela adierazi dute⁹. Hori bermatzeko, eskoletan lehen sorospenak erakutsiko balira, populazioaren zati handi batera formakuntza iristeaz ziurtatuko litzateke.

Horretaz gain, HP-ri esker, haurrak formatzaile bihurtu daitezke. Izan ere, bai etxean familiarekin, bai kalean lagunekin ikasitako informazioa elkar banatzeko eta zabaltzeko gai dira. Modu horretan, lehen sorospenen formazioa ur-jauzi baten antzera bilakatuko litzateke, biztanle gehiagori helduz^{9,20}.

Beste aldetik, lesioen larriagotzea eta eragindako lesioak baino gehiago eragitea saihestuko lirateke. Era berean, mina arintzea, infekzioak ekiditea eta berreskurapena azkartzea lortuko zen²⁵.

Gainera, zerbitzuen erabilera desegokiari buruz hausnartzeko lagungarria izango litzateke. Izan ere, larrialdi zerbitzuak, maiz, osasun zentroan artatu beharko liratekeen kontuak tratatzeko erabiltzen dira, ospitaleko zerbitzua erabat kolapsatuz²⁹.

Azkenik, umeek osasun arloko beharrak dituztela eta, askotan, guraso edo irakasleak horiek asetzeko gai ez direla onartu behar da, horretarako, osasun profesionalak daude¹. Ildo beretik jarraituz, lehen sorospenak osasun arloko kompetentzia gisa ulertuz, HP osasun profesionalek bideratu beharko luketela uste da.

Aldi berean, hezkuntza programa jorratu nahi denez, erizaina pertsona egokiena dela sinisten da. Erizainak lan bikaina egin dezake. Izan ere, erizaina osasun hezkuntzan espezializatua izateaz gain, osasun sustapenean eta istripu prebentzian hezteko gaitasuna du. Gainera, erizain lanpostuak gehitu ez ezik, erizainaren irudiak ikusgarritasun handiagoa lortuko luke, umeek adin txikietatik ogibidearen rola eta honen garrantzia ikasiko bailukete³⁰.

Bestalde, erizainen artean eskola eremuan lan egiten duen taldea 'Eskolako Erizaina' da¹. Artikulu eta egindako interbentzio gehienek eskolako erizainari erreferentzia egiten diote. Honek, eskola eremuan arreta eta osasun zainketak eman ez ezik, eskolako ikasleen ongizate fisikoan, psikikoan eta sozialean parte hartzen du ere¹. Gainera, eskolako irakasleekin eta

gurasoekin harreman jarraia izatean, gaia gertuago aurkezteko eta ulertzeko estrategiak bereganatu ditzake; hala nola, konfiantzazko erlazioak sortuz, umeen informazioa lortuz eta behar duten laguntza eskainiz. Modu horretan, irakasleen eta gurasoen interesa piztuz gero, programan zehar laguntzeko prest aurkeztu daitezke.

Kontuan izanda lehen mailako arretan dauden erizainak egokiak diren arren, lan karga handia dutela, eskolako erizaina hezkuntza programa aurrera eramateko profesionalik aproposena dela uste dut. Horrek bere irudia aberasten eta finkatzen lagundu dezake. Gasteizen, esaterako, halako erizainen kopurua oso urria da, beraz, lehen aipatu bezala, proiektu honekin eskolako erizain kopurua igotzea lortuko litzateke.

Amaitzeko, osasun hezkuntza programa honek printzipio bioetiko guztiak beteko dituela argi utzi nahi da. Alde batetik, autonomia printzipioa bermatzeko, haurren gurasoei beraien seme-alabek programan parte hartzeko aukera emango zaie. Bestalde, ume guztiak berdintasunaren barne artatuko dira, justizia printzipioa ziurtatuz. Horrez gain, kalterik ez egitearen printzipioa jarraituz, ez da mina eragiten duen prozedurarik aurrera eramango. Azkenik, onura printzipioa ziurtatzeko, lanean zehar adierazitako onurak eskuratuko dituzte, bai beraiantzat bai gizartearentzat.³¹.

3. HELBURUA

3.1 Xedea:

Hezkuntza programa honek haurren arteko lehen sorospenen inguruko ezagutza tasa igotzea lortu nahi du.

3.2 Helburu orokorra:

Programa amaitu ondoren, umeez ikasitako lehen sorospenak aurrera eramateko ezagutzak eta maneiatzeko gaitasunak bereganatuak izango dituzte.

3.3 Bitarteko helburuak:

- **Kognitiboak:** Programa amaitu ondoren, lehen sorospenenak burutzeko ezagutzak bereganatuak izango dituzte.
- **Afektibo-jarrerazkoa:** Programa amaitu ondoren, umeez lehen sorospenen aurrean jarrera positiboa aurkeztuko dute.
- **Trebetasun-jokabidea:** Programa amaitzean umeez, lehen sorospenak burutzeko teknikak eta estrategiak erabiltzeko gaitasuna aurkeztuko dute.

4. METODOLOGIA PEDAGOGIKOA

Urtez-urtez osasun sisteman pazientearen eta osasun profesionalaren arteko harreman terapeutikoa eredu biomedikoan oinarritu egin da. Eredu horren arabera, osasun profesionalaren jarrera noranzko bakarrekoa da. Hau da, osasun profesionalak pazienteari informazioa eskaintzen dio, eta pazienteak bere ulermenaren eta kudeaketaren arduraduna da. Modu horretan, pazienteak inguratzen dituen faktoreak, ezaugarriak eta gaitasunak albo batean uzten dira, gaixotasuna eta osasun profesionala ardatza izanik³³.

Denbora aurrera joan ahala, konturatu ziren eredu hori hezkuntza baterako eraginkortasun gutxi zeukala. Izan ere, pazientearen faktoreak, ezaugarriak, gaitasunak edota emozioak, osasun hezkuntzarako ezinbestekoak dira, ezagutza eta trebetasun berriak barneratzen laguntzen baitituzte³³. Horregatik, hezkuntza programa honetan eredu hori guztiz baztertuta geratuko da.

Bestalde, HP honek "Banduraren Ikaskuntzaren Giza Teoria" oinarri bezala izango du. Teoria horren arabera, osasunaren kontzeptua ongizate fisiko, psikiko, espiritual eta emozional bezala ulertzen da. Pertsonak ikuspuntu gizatiar eta holistiko batetik antzematen dira, eta faktore pertsonalak, sozialak eta ingurune faktoreak pertsonen beharretan eragina dituztela sinisten du^{34,35}. Hau da, kasu honetan umeak ardatza izango dira eta beraien faktore guztiak kontuan hartuko dira.

Hortaz, HP honen noranzkoa bikoia izango da. Une oro, erizainaren eta umeen artean elkarreragina mantenduko da. Informazioa ez da era hutsean emango ezta ezarriko, baizik eta umeekin batera landu. Izan ere, soilik informazioa eskaintzearekin ez da nahikoa edukia barneratu dezaten³⁶.

Hala ere, irakaskuntza prozesu honek eragina izateko, arlo emozionala eta soziala kontuan hartuko dira. Izan ere, lehen sorospenak behartzen dituen egoera batzuei aurre egiteko zaila izan daiteke. Horregatik, lehendabiziko saioetan arlo emozional-afektiboa eta soziala jorratuko dira. Esaterako, lehen sorospenak burutzearen garrantzia eta emozioen kudeaketa erakutsiko zaie. Halaber, saio guztietan gogoratuko zaie.

Arlo kognitibo eta afektiboa landu ondoren, trebetasuna landuko da. Saioetan zehar, material eta jarduera ezberdinekin landuko da, eta 6. mailan ikasitako lehen sorospen trebetasunaren ebaluazioa egingo da. Jardueretan zehar, erizainak modu positiboan errefortzatuko ditu umeek ondo egindako jarduerak, eta gaizki burututakoak hezkuntza prozesua errepikatuko die ondo ulertu edo burutu arte.

Umeen arlo ezberdinak lantzeko eta barneratzen laguntzeko, jarduera ugari eta ezberdinak erabiliko dira, hala nola; informatibo, afektibo, motibazionala edo trebakuntza. Izan ere, simulazioak, motibazio estrategiak, rol ereduak eta ikaskuntza kolaboratzailea barne hartzen dituzten metodologiak garapen eta ikaskuntza hobezin bat lortzeko eraginkorrenak direla egiaztatu da²⁴. Beraz, baliabide zuzenak eta ez-zuzenak konbinatuko dira. Zuzenak,

elkarrizketak, tailerrak, rol playing-ak eta jolasak izango dira. Ez-zuzenak, aldiz, aurkezpenak (Power-point, Prezi), bideoak, kartelak eta triptikoak izango dira. Zenbait material, Osakidetzari edo Erizaintzako Eskolari eskatu ahalko dira, adibidez, panpinak.

Aitzitik, bitarteko materialarekin ez da nahikoa izango programa aurrera eramateko. HP eta saioak aurrera ondo joan daitezen, partaideen rola proaktiboa izatea espero da³⁷. Modu horretan, jarduerak burutuz, ume bakoitzari lehen sorospenen garrantzia barneratzen laguntzeaz gain, etorkizunean lehen sorospenak burutzeko ekimena garatzen lagunduko dio ere.

Bestalde, bideratzailearen jarrera, hau da, erizainaren jarrera egokia izan behar da. Izan ere, erizainak gidari gisa jardungo du. Saioak, berak aurrera eramango ditu, umeen eta ekintza ezberdinen laguntzarekin. Bere ardura informazio teorikoa errazteaz batera, umeek parte hartzea lortzea izango da. Umeek irudi autoritario bezala hartu beharrean, konfiantzazko eta gertutasunezko pertsona bezala ikusi behar dute. Halaber, mutur batean zein bestean kokatzeak, arreta eta konfiantza galtzea eragin ditzake. Elkarren arteko errespetua egongo da. Horrekin batera, erizainak ez du epaiketarik egingo eta konfidentziasuna bermatuko du. Motibazioa piztea, entzute aktiboa eta erlazio enpatikoa garatzea ere lortu beharko ditu. Modu horretan, konfiantzazko giroa sortzeko lagungarria izango zaio.

Horren harira, irakaskuntza-ikasketa prozesua aktibo zein dinamikoa izango da. Lehendabizi umeek dituzten lehengo sorospenen inguruko sinesmenak eta ideiak identifikatuko dira. Horrek ere, aurretiko ezagutza maila neurtzeko balio izango du eta informazioa eman ondoren ezagutza mailarekin alderatzeko. Ondoren, lehen aipatutako bitarteko jardueri esker, erizainak umeen gaitasun kognitiboa, afektiboa eta trebetasunak garatzen lagunduko dizkie.

Horretarako, arlo motibazioa lantzea garrantzitsua izango da. Horrekin, umeek etengabeko partaidetza lortuko da. Aurretik aipatu den bezala, ez da soilik teoria edo informazioa eman behar, baizik eta umeek beraiek informazio hori ateratzen laguntzea. Horretarako, profesionalak galderak egingo dizkie, eta programan zehar umeen eta profesionalaren arteko *feedback*-a egongo da, umea egin nahi ez duen ekintzara behartu gabe. Izan ere, adin txikiko ume askok lotsa edo beldurra senti dezakete. Horregatik konfiantzazko giroa sortzea garrantzitsua da.

Adinari dagokionez, ez dago ikerketarik adin hobereana zehazteko. Izan ere, ez dago hezkuntza programa baten estandarizaziorik^{9,10,11}. Hala eta guztiz ere, adina ez da oztipoa ikasterako orduan. MOE-ren eta ikerketa gehien aburuz, umeek lehen sorospenak ikasi ahal dituzte arazorik gabe^{5,17}.

HParen denborari buruz, iturri ezberdinek lehen sorospenen irakaskuntzari buruzko denbora bat edo beste proposatzen dute. MOE-k urtean gutxienez 2 ordu ematea gomendatzen du. Halaber, ikaskuntza jarraia izan behar da, gutxienez 2 urtero; ikerketen arabera, 2 urte ondoren ezagutza maila hori galdu dezakete-eta. Hala ere, informazioa eta trebetasunak

oroitzeko ahalmenak neurtzen dituzten ikerketa gehiago behar dira^{9,10}. Beraz, zenbat eta lehenago hasi ikaskuntza, trebakuntza gero eta iraunkorragoa izango da¹².

Hau kontuan hartuz, programa lehen hezkuntzako bigarren, laugarren eta seigarren mailatan burutuko da. Alde batetik, maila horietako guztietako adinak bat datoz ikerketen gomendatutako adinarekin. Beste aldetik, modu antolatuago eta bideragarriago batean egiteko asmoz, hiru maila horiek aukeratu dira. Maila bakoitzak bere saioak izango ditu eta maila horietara egokituta egongo dira. Mailaz igotzen duten heinean saioen edukiera eta gaitasunak ere igoko dira. Saio bakoitzean, aurreko saioetan emandakoa berreskuratuko da, umeek ikasitakoa eta egon ahal diren ahultasunak antzemateko. Saioetan, ezagutza, informazioa eta trebetasunak landuko dira. Hauek guztiak, gako puntuak izango dira programaren helburua lortzeko. Aldi berean, programan zehar, inkestak eta galdeketak erabiliko dira. Hauek programaren eraginkortasuna eta asetze maila neurtzeko balioko dute.

Aitzitik, saioak maila bakoitzerako egokitu arren, umeek adimen maila ezberdinak eta testuinguru ezberdinak izan ditzakete, adibidez, gurasoak osasun profesionalak izatea eta zenbait kontzeptu jakitea. Beste batzuk ordea, gaiari buruz ideiarik ez edukitzea. Edota, umeren bat baztertua sentitzea beste kideek baino ezagutza zein trebezia gutxiago daukala sentitzen duelako. Horregatik, profesionalak kontuan hartu behar ditu beste faktoreak, hala nola; umeen egoerak, baloreak, jokaerak, kultura edo gaitasunak. Uneoro, ume guztiak errespetuz tratatuko ditu aurreiritzirik izan gabe. Eta partaideren batek laguntza behar izanez gero, profesionala prest egon beharko da entzuteko jarrera aktiboa eta positiboa aurkeztuz.

Gainera, helduekin konparatuz, umeek informazioa ulertzeko eta barneratzeko modu ezberdinak dituzte. Hori dela-eta, informazioa modu erraz, zuzen, labur eta dibertigarri batean emango da. Horrekin batera, adibideak umeen testuinguruan kokatuko dira, ulergarriagoak izan daitezen. Modu horretan motibazioa lantzeko lagungarria izango da.

Hezkuntzaren saioak klase osoarekin egingo dira; irakaslea klasean bertan egon daiteke klasean ordena jartzeko. Bestalde, umei saioak errazagoak eta arinagoak egingo zaizkie klasekideak ondoan baldin badauzkate. Klasekideen ideiak elkarrekin partekatzeaz gain, arlo soziala sustatzeko baliagarria izango da.

Azkenik, 2020an izandako pandemia dela eta, badaezpada ere segurtasun neurriak bermatzeko protokoloa sortuko da, nahi izanez gero eskura izateko eta ezartzeko.

5. PROGRAMAREN DISEINUA

5.1 Populazioaren definizioa

Programa honen **barneratze irizpideei** dagokienez, HPren partaideak lehen hezkuntza ikasten ari diren, 2., 4. eta 6. mailako haurrak izango dira. Gasteizko eskola publiko zein hitzarmenduan ikasi egin behar dute. Euskara edo gaztelera jakin beharko dute. Programa honek euskararen aldeko apustua egiten du, hala ere, Gasteizko eskoletan oraindik gaztelera soilik hitz egiten duten klaseak daude. Modu horretan, ahalik eta populazio handien hartzea bermatuko da.

Berez, lehen hezkuntzako bigarren, laugarren eta seigarren mailako ikasleentzat zuzenduta egongo da. Gutxieneko adina 7 urtekoa izango da, gehiengoa ordez aldagarria izan daiteke. Izan ere, batzuk errepikatzaileak izan daitezke eta ondorioz maila bakoitzerako nagusiagoak izan. Hori kontuan izanda, hezkuntza mailari dagokionez, taldea homogenea izango da. Ordez, generoari, gizarte taldeari, jaioterriari edo erlijioari begira, taldea heterogeneoa izango da. Kasu honetan programarako horrelako faktoreak ez dutelako eraginik. Saioak maila bakoitzeko klase osoarekin egingo da, beraz, partehartzaile kopurua klase bakoitzaren araberkoa izango da.

Kanporatze irizpideei dagokienez, behar bereziak dituzten umeen eskolak eta Gasteizko udalerritik kanpo dauden eskolak baztertuko dira. Alde batetik, prestatutako materiala ez dagoelako behar bereziak dituzten umeentzako egokituta. Hala ere, klaseren batean berezitasunak dituzten umeak egon daitezke. Horregatik, aurretik klaseko tutoreari galdetuko zaio eta umeren bat egonez gero ume horren hezitzaileak, hots, PT-ak (gaztelera, *Pedagogía Terapéutica*) laguntzaile moduan jardungo du. Bestalde, momentuz Gasteizko eskolak aukeratu dira proba moduan jarduteko. Programa ondo joanez gero, Gasteizko ondoko herrietara zabaldu daitezke, edota Arabako herrietara.

5.2 Hedatzeko eta erakartzeko estrategiak eta saio edukiak

Hasteko, Gasteizko osasun zentroetako pasabideetan eta iragarki-tauletan kartelak ezarriko dira (7.eranskina). Aldi berean, triptikoak eskuragarri utziko dira, adibidez, harrera lekuan eta erizainen kontsultetan, nahi duen pertsonarentzako (8.eranskina). Gizarte-etxeetan berdin jardungo da, informazio puntuetan kartelak eta triptikoak ezarriko dira. Baliabide hauei esker, programaren informazioa, helburuak eta saioen laburpena eskuragarri izango dituzte. Modu horretan, jendea ekimen honen jakinean egongo da, eta gurasoren bat edo beste norbait interesatuta egonez gero, triptikoetan eta karteletan utzitako kontaktuetara jo dezake.

Bestalde, Gasteizko eskola publiko zein hitzarmenduekin telefonoz edo *e-mailen* bitartez harremanak lortuko dira. Zuzendaritzarekin edo AMPAekin bilerak proposatuko dira eta bertan programa aurkeztuko zaie kartelen eta triptikoen bitartez. Bilera hau, ikasturte berriaren hasiera

baino lehen egitea komeni da, beraz, maiatza baino lehen batuko dira. Bilera horren ondoren, proposamena onartzeko epea ekainean izango da, 2022ko ekainaren 29an hain zuzen ere. Horrela, ikastetxeek zein erizainek denbora izango dute hurrengo ikasturterako antolaketa burutzeko.

Urte horretan eskolaren bat interesatuta egonez gero, segun eta erizaintzako urte horretako lan karga handia den ala ez, eskola hori hurrengo urterako utziko da. Lekua izanez gero, erizainen antolaketaren arabera, urte horretan bertan batu ahal izango da. Hori dela-eta, urtean zehar izena emateko epea irekita egongo da, ekainera arte.

Halaber, programaren lehendabiziko antolakuntza honela izango litzateke: lehen urtean programa eskolako soilik bigarren mailako umeekin hasiko zen. Bi urte barru, umeak 4. mailara pasatuko lirateke, beraz, eskola horretako 4. eta 2. mailako umeek jasoko lukete beraien saioak. Bi urte barru, eskola horretako 2., 4. eta 6. mailako umeekin burutuko litzateke programa. Hori dela-eta, eskolek beraien asistentzia bermatu beharko dute. Urtero korreo baten bitartez gogoratuko zaie. Honetarako, antolakuntzarako, Excel-a lagungarria izango da eskola bakoitzeko klaseen kontua eramateko (9. Eranskina).

Honekin batera, sare sozialak sortuko dira (*Instagram, Twitter eta Facebook*), eta horren bitartez argazkiak, bideoak edo bestelako informazioa partekatuz. Hau guztiari esker, Gasteizen bizi ez diren jende gehiagori heltzeko aukera egongo da. Honetarako, eskolari jakinaraziko zaio programan zehar argazkiak aterako direla. Eskolaren eta gurasoen baimenaren arabera umeen aurpegiak aterako dira ala ez.

Horretaz gain, egun zehatzetan programa honen proba modukoa aurkeztu daiteke. Adibidez, zientzia astean zehar, Gasteizen 'Bi Bat' museoan hainbat erakusketa antolatzen dira zientziari buruzko ezagutzak ezagutarazteko. Beraz, egun horretan erakusketa txikia egin daiteke eskolak erakartzeko asmoz. Gauza berdina egin daiteke beste egun berezietan, hala nola; Araba euskarako egunean, Gasteizko jaietan edo gabonetan. Kartelen, triptikoen eta tailerren bitartez eskola gehiago erakarri daitezke. Gainera arrakasta izanez gero, aurrekoan esan bezala, Gasteizetik kanpo zabaldu daiteke.

Hortaz, Osasun Programa 2022ko irailetik 2023ko ekainera arte burutuko da. Programa 6 saioz osatuta egongo da, bakoitza 45-60 minutuko iraupenarekin. Maila bakoitzean, bi saio egongo dira. 2 saio horiek bi astetan emango dira, aste batean saio bakoitza. Proposatutako orduak, tutoretza edo natur-zientziaren orduak dira. Izan ere, gai hau natur-zientziarekin erlazio handiena duen irakasgaia da. Hala ere, ikastetxeak erabaki al dezake zein ordu erabili. Osasun Programa eskola bakoitzean aurrera eramango da. Ahal bada proiektorea dagoen klaseren batean, material audiobisuala erabili ahal izateko.

Eskola bakoitza behin programaren parte direnean, zalantzak edo beste zeozer argitzekotan, e-mail bat eta telefono zenbaki bat utziko zaie.

5.3 Besteak

Aurrekoaz gain, umeren bat saioetara aurkezten ez bada ez da ezer gertatuko. Hurrengo saiora aurkeztu daiteke arazorik gabe, edo eskolak ahalbidetzen badio, galdu duen saioa errekuperatzeko beste saio batzuetara batu daiteke. Hala ere, seigarren mailako saioetara bertaratzea ezinbesteko izango da.

Bestalde, laguntzaile moduan, Erizaintzako Eskolari ikasleen parte hartzea eskatu ahal zaio, horren ordez kredituak aitortuz.

5.4 Hezkuntza saioen eskema

*Eskolaren arabera izango denez, datu horiek adibide gisa ezarri dira.

LH 2.maila			
Saioa, titulua	Iraupena	Data, ordua eta lekua*	Edukiak
1. AURKEZPENA: NORTZUK GARA?	55'	Astelehena: 2022/10/10 <i>Ordua:</i> 9:00-9:55 <i>Lekua:</i> Antonio Lopez de Guereñu	<ul style="list-style-type: none"> * 'Elkar ezagutzen': erizain eta partaideen aurkezpena * Programaren azalpena * Lehen sorospenen bizipenen inguruan hitz egin * Lehen sorospenak ikasi, 'Sorospen istorioak'
2. LEHEN SOROSPENAK IKASTEN!	50'	Osteguna: 2022/10/13 <i>Ordua:</i> 9:00-9:50 <i>Lekua:</i> Antonio Lopez de Guereñu	<ul style="list-style-type: none"> * Lehen sorospenen bizipenei buruz hitz egin * Lehen sorospenak ikasi eta praktikan jarri, 'Eskape room' batekin

LH 4.maila			
Saioa, titulua	Iraupena	Data, ordua eta lekua*	Edukiak
3. LEHEN SOROSPENAK MAITATZEN	50'	Astelehena: 2022/10/14 <i>Ordua:</i> 9:00-9:50 <i>Lekua:</i> Antonio Lopez de Guereñu	<ul style="list-style-type: none"> * Aurrekoa gogoratzen! Lehen sorospenen inguruan hitz egin * Sorospentxoak!: sorospen gehiago ikasi * Egia ala Gezurra?
4. AUPA LEHEN SOROSPENAK!	50'	Osteguna: 2024/10/17 <i>Ordua:</i> 12:00-12:50 <i>Lekua:</i> Antonio Lopez de Guereñu	<ul style="list-style-type: none"> * 'Simulakroa!': jarri praktketan ikasitakoa * Rol-playing * Muraltxoa: hausnartu dezagun

LH 6.maila			
Saioak, titulua	Iraupena	Data, ordua eta lekua*	Edukiak
5. AUPA LEHEN SOROSPENAK!	50'	Astelehena: 2026/10/12 <i>Ordua:</i> 11:00-11:50 <i>Lekua:</i> Antonio Lopez de Guereñu	* Lehen sorospenak gogoratzen * Teoria time!: gelditzen diren lehen sorospenak ikasi
6. SOROSTXIKIA NAIZ!	60'	Osteguna: 2026/10/15 <i>Ordua:</i> 11:00-12:00 <i>Lekua:</i> Antonio Lopez de Guereñu	* Lehen sorospen tailerrak! * Kontroltxoa! * Agurra

5.5 Hezkuntza saioen garapena

1.saioa: 'ARKEZPENA: NORTZUK GARA?'

Ikaskuntzaren helburu espezifikoak:

Saioa amaitzerakoan, umeak gai izango dira:

- Lehen sorospenen inguruko aurre ezagutzak eta ezagutza okerrak adierazteko.
- Sorospen egoera ezberdinetan sor daitezkeen emozioak identifikatzeko eta kudeatzeko teknikak ezagutzeko.
- Saioan landutako lehen sorospenak (112rako deia, epistasia, zaurien maneia eta erreduarak) identifikatzeko eta kudeatzeko teknikak ezagutzeko.
- Lehen sorospenen garrantzia antzemateko.

1. jarduera – Erizainak ezagutzen

Helburuak	<i>Jarduera amaitzerakoan, umeak gai izango dira:</i> <ul style="list-style-type: none"> • Programa aurrera eramango duen pertsona ezagutzeko. • Erizainaren irudia ezagutzeko.
Prozeduraren deskribapena	Jarduera honen helburua, denen artean elkar ezagutzea da. Erizainak umeekin batera lurrean borobilean eseriko dira. Horrela maila berean daudela sentitzeko. Hasteko, erizainek beren burua aurkeztuko dute. Aldi berean, umei erizainaren irudiari buruz galdetuko diete eta haien funtzioei buruz hitz egingo diete. Horrek, erizainaren irudia azalertzeko eta ezagutzeko balioko du. Ondoren, laburki umei programa azalduko diete, hau da, zer ikusi eta ikasiko duten programa honi esker, eta nolakoa izango den. Azkenik, pegatina batzuk banatuko dira eta bertan bai umeek, bai erizainek beraien izenak idatziko dituzte (10.eranskina). Modu horretan, erizainak umeengana haien izenaz zuzendu daitezke gertutasuna aurkeztuz.
Hartzaileak	Ume talde osoa.
Baliabide materialak	<ul style="list-style-type: none"> • Pegatinak (umeentzako diseinatuta dauden pegatinak) • Boligrafoak
Denbora	10 minutu

2. jarduera – Bizipenak

Helburuak	<i>Jarduera amaitzerakoan, umeak gai izango dira:</i> <ul style="list-style-type: none"> • Bizitako lehen sorospen egoerei buruzko aurre ezagutzak adierazeko. • Saioan zehar lotsa gutxiago aurkezteko.
Prozeduraren deskribapena	Jarduera honetan, erizainak umei lehen sorospenak noizbait burutu izan beharreko egoeraren bat bizi izan duten galdetuko die. Umeek haien

	izena esango dute eta bizipen hori deskribatuko dute, hala nola; zer gertatu zen, nola sentitu ziren, zer egiten zuten... Beste erizaina edo laguntzailea borobiletik aterako da eta ateratzen diren sorospinak, emozioak zein sentimenduak arbelean idatziko ditu. Hori guztia hurrengo jarduerarako baliagarria izango da. Jarduera boluntarioa izango da, baina umerik ateratzen ez bada, ausez aukeratuko dira. Jarduera amaitzerakoan erizaina edo laguntzailea berriz eseriko da.
Hartzaileak	Ume talde osoa.
Baliabide materialak	<ul style="list-style-type: none"> • Arbela • Klariona
Denbora	10 minutu

3. jarduera – Sorospin istorioak

Helburuak	<p><i>Jarduera amaitzerakoan, umeak gai izango dira:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikasitako lehen sorospinen (112 deia, epistasia, zaurien maneia eta erredurak) inguruko aurre ezagutzak eta ezagutza okerrak adierazteko. • Sorospin egoera ezberdinetan sor daitezkeen emozioak identifikatzeko eta kudeatzeko. • Lehen sorospinen garrantzia antzemateko.
Prozeduraren deskribapena	<p>Erizainak komiki eran sortutako marrazki istorioen bitartez landuko du jarduera hau (11.eranskina). Erizain batek lurrian eserita eta umeen alboan azaldu ditzake egoera ezberdinak, eta beste erizainak proiektorean ezarri ahal ditu komikiaren argazkiak umeek hobeto ikus ditzaten. Jarduera honek lehen sorospinak eta egoerei aurre egiteko mekanismoak azaltzeko balioko du. Maila honetan 4 lehen sorospin irakatsiko dira, besteak beste; 112rako deia, epistasiak, zaurien maneia eta erredurak. Hauetako bakoitza, umeek hobeto ulertu dezaten, istorio baten bitartez azalduko da. Aldi berean, egoera bakoitza deskribatzen den heinean, umei gaixoa zein lekukoa nola uste duten sentituko litzatekeen galdetuko zaie, eta haiek identifikatuta sentitzen diren. Modu horretan, egoera horietan urduritasuna, beldurra edo segurtasun eza bezalako emozioak eta sentimenduak senti ditzaketela azalduko eta ulertaraziko zaie. Aurreko jardueran ateratakoarekin erlazioa sortuko da, hau da, beraiek ere egoera erreal batean horrela sentitu direla. Horrekin batera, momentu horretan lasaitasuna mantentzea garrantzitsua dela azalduko zaie. Horretarako, adibidez, urduritasuna sentituz gero, aurretik arnasketa sakon bat egitea gomendatuko zaie. Aldi berean, ekintza burutu aurretik pentsatu behar dutela adieraziko zaie. Erizainak, lehen</p>

	<p>sorospenen garrantzia azpimarratu behar du, umek egoera erreal batean hauek burutzeko motibazioa pizteko asmoz. Azkenean pertsona baten bitzta salbatu ahal dezaketela azpimarratuko zaie.</p> <p>Bestalde, egoera bakoitzean haiek zer egingo luketen galdetuko zaie. Horrela, aurre ezagutzak antzemango eta zuzenduko dira. Erizainak eta umek elkarrekin batera teoria aterako eta zuzenduko dute. Hau da, erizainak etengabe galdetuko die umeei eta hauek erantzun zuzena eman arte itxarongo du edo bideratuko du. Ondoren, egoera bakoitzak eskatzen duen sorospenaren azalpen osoa emango du.</p>
Hartzaileak	Ume talde osoa.
Baliabide materialak	Komiki marrazkiak plastifikatuta Proiektorea Ordenagailua Pantaila
Denbora	30 minutu

4. jarduera – Birpaso ordua!

Helburuak	<p><i>Jarduera amaitzerakoan, umek gai izango dira:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • Sorospen egoera ezberdinetan sor daitezkeen emozioak identifikatzeko eta azaltzeko. • Irakatsitako lehen sorospen teknikak (112rako deia, epistasia, zaurien maneia eta erreduzak) identifikatzeko. • Saio honetan landu diren lehen sorospenen garrantzia azaltzeko.
Prozeduraren deskribapena	<p>Amaitzeko, erizainak galderak ahoz botako ditu emandakoa erreparatzeko asmoz. Galderak hurrengoak izan daitezke:</p> <ul style="list-style-type: none"> * <i>Zein zenbaki markatu behar dugu emergentzietara deitzeko?</i> * <i>Epistian, norantz mugitu behar dugu burua?</i> * <i>Zerekin garbituko dugu zauria?</i> * <i>Zer egingo dugu erre eginez gero?</i> * <i>Normala da beldurra, urduritasuna... bezalako emozio eta sentimenduak agertzea? Zer egin behar dugu kasu horietan?</i> <p>Azkenik azpimarratuko du lehen sorospenen garrantzia. Horrekin batera, umeei esango die asteen zehar lehen sorospenekin erlazioa duten egoerak ikusiz edo biziz gero, hurrengo saioan kontatu ahalko dituztela. Gainera, gainera hurrengo saioan egingo dena azalduko die.</p>
Hartzaileak	Ume talde osoa.
Baliabide materialak	--
Denbora	3 minutu

5. jarduera – Saioa gustatu zait?	
Helburuak	<i>Jarduera amaitzerakoan, umeak gai izango dira:</i> <ul style="list-style-type: none"> • Saioaren asebetetze maila adierazteko.
Prozeduraren deskribapena	Saioaren amaieran umeek <i>emoji</i> -en bitartez saioarekin izan duten asebetetze maila adieraziko dute (12.eranskina).
Hartzaileak	Ume talde osoa.
Baliabide materialak	<ul style="list-style-type: none"> • <i>Emojia</i>k • Postontzia
Denbora	2 minutu

2.saioa: 'LEHEN SOROSPENAK IKASTEN!'

Ikaskuntzaren helburu espezifikoak:

Saioa amaitzerakoan, umeak gai izango dira:

- Ikasitako lehen sorospenen ezagutzak (112rako deia, epistasia, zaurien maneiua eta erredurak) identifikatzeko eta interpretatzeko.
- Sorospen egoera ezberdinetan sor daitezkeen emozioak identifikatzeko eta kudeatzeko.
- Lehen sorospenen aurrean jarrera positiboa aurkezteko.
- Lehen sorospenen garrantzia azaltzeko.

1. jarduera – Bizipentxoak?

Helburuak	<i>Jarduera amaitzerakoan, umeak gai izango dira:</i> <ul style="list-style-type: none"> • Programa aurkezten duten erizainekin gertutasuna erakusteko. • Saioan zehar lotsa gutxitzeko.
Prozeduraren deskribapena	Hasteko, erizainek izena jartzeko pegatinak banatuko dituzte. Ondoren, umei ea bizipenen bat bizi izan duten galdetuko diete, eta hala izanez gero horren inguruan hitz egingo dute: zer gertatu zen?, nola kudeatu zuten?, nola sentitu ziren?, zer ikasi zuten?...
Hartzaileak	Ume talde osoa.
Baliabide materialak	<ul style="list-style-type: none"> • Pegatinak (umeentzako diseinatuta dauden pegatinak) • Boligrafoak
Denbora	5 minutu

2. jarduera – Eskape room!

Helburuak	<i>Jarduera amaitzerakoan, umeak gai izango dira:</i> <ul style="list-style-type: none"> • Ikasitako lehen sorospenen ezagutzak (112rako deia, epistasia, zaurien maneiua eta erredurak) identifikatzeko eta interpretatzeko. • Lehen sorospenen garrantzia azaltzeko.
Prozeduraren deskribapena	Jarduera hau joko baten bitartez gauzatuko da. Klasea bi taldetan banatuko da eta talde bakoitza erizain batekin joango da. Talde bakoitzak zenbait kode deszifratu beharko dituzte denbora zehatz batean irabazi ahal izateko (13. eranskina). Lehenengo proba, giltzarrapo batez itxita dagoen altxor (edo kaxa) bat izango da. Horren barruan hurrengo kodea eskuratzeko galdera bat aurkituko dute. Horretarako, erizainak lehenengo galdera botako die eta hori ondo asmatuz eta interpretatuz gero, altxorra edo kaxa hori irekitzeko giltza emango die. Kaxa horren barruan beste galdera bat aurkituko dute. Bertan dagoen galderari erantzun zuzena ematen badiote, hurrengo proba desblokeatu ahalko dute. Izan ere, erantzuna zenbaki bat izango da eta mugikor batean sartu beharko dute. Bertan azaltzen diren argibideak jarraitu beharko dituzte. Kasu honetan,

	erizainak hurrengo antzerkia egingo du: besoa erre balu bezala egingo du eta aldi berean oihuka hasiko da, urduri egongo balitz bezala. Ondoren, umeei galdetuko die berari laguntzeko zer egin beharko luketen. Umeek erizainari laguntzeko teknika burutuko dute, baina horretaz gain, erizaina nola tratatu beharko duten erantzun beharko dute ere. Azken proba ondo erantzunez gero, erizainak azken zenbaki kodea emango die azken kutxa irekitzeko. Barruan puzzle bat eraiki beharko dute eta agertzen den galderari erantzun (14.eranskina). Proba guztiak gainditzen dituen taldea irabazlea izango da.
Hartzaileak	Umeak, bi taldetan banatuta.
Baliabide materialak	<ul style="list-style-type: none"> • Altxorra edo kaxa txikia • Giltzen bitartezko giltzarrapo bat • Mugikor bat • Puzzlerako Kaxa ertain edo handia • Puzzlea
Denbora	33 minutu
3. jarduera – Kahoot!	
Helburuak	<p><i>Jarduera amaitzerakoan, umeak gai izango dira:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • Irakatsitako lehen sorospenen (112rako deia, epistasia, zaurien maneiua eta erredurak) ezagutzak aurkezteko.
Prozeduraren deskribapena	Aurretik Kahoot bat prestatuko da, 7 galderekin (15. eranskina). Ikasle kopuruaren arabera taldeak sortuko dira, oro har 4-5 talde. Talde bakoitzari kartoizko zati bat banatuko zaio, 7 borobiltxoekin (16.eranskina). Horrekin batera, Kahoot-aren erantzun aukeren koloreak banatuko zaizkie. Orduan, erizainak proiektorean galderak aurkeztuko ditu eta umeek erantzuteko borobil bakoitzean koloreak erabiliko dituzte. Erantzun zuzen gehien dituen taldeak irabaziko du. Modu honetan, ikasitakoa birpasatzeko eta ebaluatzeko balioko du.
Hartzaileak	Umeak, (ikasle kopuruaren arabera) 4-5 taldetan banatuta.
Baliabide materialak	<ul style="list-style-type: none"> • Kartulina txikiak • Errotulagailuak: gorria, urdina eta horia • Ordenagailua • Proiektorea
Denbora	10 minutu

4. jarduera – Saioa gustatu zait?

Lehenengo saioan burututako 5. jardueraren berdina.

3.saioa: 'LEHEN SOROSPENAK MAITATZEN'Ikaskuntzaren helburu espezifikoak:

Saioa amaitzerakoan, umeak gai izango dira:

- Ikasitako lehen sorospen berriak (suteak) identifikatzeko.
- Landutako lehen sorospenen inguruko ezagutzak azaltzeko.
- Sorospen egoera ezberdinetan sor daitezkeen emozioak identifikatzeko eta kudeatzeko.
- Lehen sorospenen garrantzia adierazteko.

1. jarduera – Bizipentxoak!

Erizainek beren burua aurkeztuko dute eta programaren antolaketa gogoratuko diete umeei. Hurrengo, 2.saioan egindakoaren berdina izango da.

2. jarduera – Sorospentxoak

Helburuak	<i>Jarduera amaitzerakoan, umeak gai izango dira:</i> <ul style="list-style-type: none"> • Lehen sorospen berriak (suteak) ezagutzeko. • Sorospen egoera ezberdinetan sor daitezkeen emozioak identifikatzeko eta kudeatzeko. • Lehen sorospenen garrantzia adierazteko.
Prozeduraren deskribapena	Aurkezpen (Prezi) baten bitartez lehen sorospenak azalduko dira (17.eranskina). Erizaina lehen sorospenak azaltzen doan heinean, umei galderak egiten joango da. Modu honetan, aurretik ikasitako lehen sorospenak gogoratzeko eta azaltzeko balioko du. Bestalde sorospen berria irakatsiko zaie, suteak nola maneiatu hain zuzen ere. Aurkezpenean, sorospen bakoitzean arlo teknikoa azaltzeaz gain, egoera horietan senti ditzaketen emozioei eta sentimenduei buruz hitz egingo dute. Hortaz, berriro azalduko zaie nola senti daitezkeen egoera horietan eta zer egin edo egoera nola kudeatu dezaketen.
Hartzaileak	Ume talde osoa.
Baliabide materialak	<ul style="list-style-type: none"> • Proiektorea • Pantaila • Ordenagailua
Denbora	33 minutu

3. jarduera – EGIA ala GEZURRA?

Helburuak	<i>Jarduera amaitzerakoan, umeak gai izango dira:</i> <ul style="list-style-type: none"> • Ikasitako lehen sorospenak (112rako deia, epistasia, zaurien maneia, erredurak eta suteak) identifikatzeko eta azaltzeko.
Prozeduraren deskribapena	Jarduera hau jolas eran burutuko da. Klasea 3-4 taldetan banatuko da eta talde bakoitzak bi kartel izango ditu (18.eranskina). Erizainak galdera egia edo gezurra erantzun moduan dituzten galderak botako ditu, eta talde

	<p>bakoitzak kartel egokia altxatuz erantzungo du. Kartel zuzena altxatzen duen taldeak 20 puntu irabaziko ditu, bigarrenak erdia eta azkena gutxiago. <i>Puntuak ateratzen diren taldeen arabera izango dira, berez berdin du, horren asmoa umeen arteko partaidetza, motibazioa eta lehiakortasuna sustatzea izango da.</i> Erantzuna gezurra izanez gero, taldeak zuzendu beharko du, gaizki zuzenduz gero ez zaie punturik emango eta beste talde bati errebotea emango zaio.</p> <p>Galderak hauek izango dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> * <i>Sudurreko odoljariora dudanean burua atzerantz botako dut!</i> * <i>Lehen sorospenak burutzea bizitzak salba ditzake.</i> * <i>Zauria garbitzeko amaren aurpegiko krema erabiliko dut.</i> * <i>Lehen sorospenak burutu behar dudan egoera baten aurrean oihuka eta bueltaka hasiko naiz.</i> * <i>Emergentzietarako deia 110 da.</i> * <i>Sute batean, lurretik lau hanketan aterako naiz, ahoa eta sudurra estaliz.</i> * <i>Besoa erretzen badut, ur hotza botako dut!</i>
Hartzaileak	Umeak, (ume kopuruaren arabera) 3-4 taldetan banatuta.
Baliabide materialak	<ul style="list-style-type: none"> • Kartelak • Makila • Arbela
Denbora	10 minutu

4. jarduera – Saioa gustatu zait?

Lehenengo saioan burututako 5. jardueraren berdina.

4.saioa: 'AUPA LEHEN SOROSPENAK!'Ikaskuntzaren helburu espezifikoak:*Saioa amaitzerakoan, umeak gai izango dira:*

- Ikasitako lehen sorospenen (112rako deia, epistasia, zaurien maneiua, erredurak eta suteak) ezagutzak erakusteko eta interpretatzeko.
- Lehen sorospen egoeretan bizi daitekeena esperimintatzeko.
- Lehen sorospenak analizatzeko.
- Lehen sorospenak duten garrantzia adierazteko.

1. jarduera – Bizipentxoak!

2. saioan egindako jarduera guztiz bezalakoa.

2. jarduera – Simulakroa eta Rol-playing!

Helburuak	<p><i>Jarduera amaitzerakoan, umeak gai izango dira:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikasitako lehen sorospenen (112rako deia, epistasia, zaurien maneiua, erredurak eta suteak) ezagutzak erakusteko. • Sorospen egoera bakoitzean jarduera egokia aplikatzeko. • Lehen sorospen egoeretan bizi daitekeena esperimintatzeko.
Prozeduraren deskribapena	<p>Aurreko jarduera bukatzen dutenean, erizain batek antzerki moduan simulakro bat egingo du. Kasua hurrengoa izango da, bizikletaz ibiltzen doala lurrera erori da (horregatik klasera bizikletako kasko batekin sartuko da). Erorketak zauriak eta sudurreko odoljariora eragin dizkio. Horretaz gain, erizainak bere besoan zauri baten marrazkia itsatsiko du eta sudurrean epistasia izango balitz bezala errotuladore gorriarekin odola marraztuko du. Zenbat eta errealistagoa izan hobeto. Orduan, klasera laguntza eske sartuko da. Umeak izango dira erizainari egoera kudeatuko diotenak. Hau da, erizainari zer egin azaltzeaz gain sorospenak burutuko dizkiote. Lehenengo erizainak galderak bota ahal dizkie pista moduan eta laguntza ematera animatu.</p> <p>Bitartean, beste erizainak horman edo arbelean egoera kudeatzeko marrazkiak itsatsiko ditu (19.eranskina), esaterako ur txorrota bat (zauria garbitzeko).</p> <p>Umeen artean bi boluntario aterako dira, eta hauek izango dira fisikoki laguntza eskainiko diotenak erizainari. Umeek txaleko isolatzaile horiak jarriko dituzte, paperean sartzen laguntzeko. Lehenengo umeak zauriaren maneiuan lagunduko dio. Horretarako, txorrotaren marrazkia erabili ahalko du benetakoa izango balitz bezala. Bigarren umeak epistasiarekin lagunduko dio, eskua non jarri behar duen adieraziz eta</p>

	<p>zenbat denboraz. Erantzun zuzena emanaz gero, erizainak sudurra garbituko du ondo sendatu duenaren seinale adierazteko.</p> <p>Hau eta gero, geratzen diren lehen sorospinak (emergentzia deia, suteak eta erredurak) umeek rol-playing-en bitartez interpretatuko dituzte. Boluntarioak eskatuko dira, eta kasu bakoitzerako bi ume aterako dira, bata biktima eta bestea soroslea izanik. Aurrekoan bezala, ume sorosleak txaleko islatzailea eramango du. Ume soroslea bera bakarrik saiatuko da kasua kudeatzen, hala ere, zalantzak izanez gero bere klasekideek edota erizainek laguntza eskaini ahalko diote.</p> <p>Lehen sorospin egoerak behin baino gehiagotan errepikatu daitezke baino boluntario ezberdinekin. Modu horretan, ume gehienak parte hartzeko aukera izango dute eta errepikapenaren bitartez hobeto geratuko zaie.</p>
Hartzaileak	Ume talde osoa.
Baliabide materialak	<ul style="list-style-type: none"> • Margoak • Zauri baten marrazkia • Ur txorrota baten marrazkia plastifikatuta • Itsasgarriak • Bizikletako kaskoa • Txaleko islatzaile horia
Denbora	28 minutu
3. jarduera – Muraltxo	
Helburuak	<p><i>Jarduera amaitzerakoan, umeak gai izango dira:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • Lehen sorospinak analitzatzeko. • Ikasitako lehen sorospinen (112rako deia, epistasia, zaurien maneiu, erredurak eta suteak) ezagutzak erakusteko. • Lehen sorospinak duten garrantzia adierazteko.
Prozeduraren deskribapena	<p>Lehen sorospinen marrazkiak dituen kartulina handi baten bitartez, (20.eranskina) erizainek eta umeek, murala sortuko dute. Marrazki bakoitza, egoera ezberdin baten irudikapena izango da. Bestalde, prestatutako esaldien bitartez (21.eranskina), banan-banan, marrazkiak eta esaldiak erlazionatuko dira. Ondoren, guztien artean horren hausnarketa egingo da. Lehen sorospinak ikasteari eta horien onurei buruz hitz egingo dute, hala nola; bizitzak salbatzea, banakako zein besteekiko osasunaz kezkatzea, zerbitzuen erabilera egokia edo laguntza emateko prestutasuna garatzea. Amaieran, murala klasean geratuko da, umeek gogoratu dezaten.</p>
Hartzaileak	Ume talde osoa.

Baliabide materialak	<ul style="list-style-type: none">• Kartulina handia• Errotulagailuak• Marrazkiak• Itsasgarria
Denbora	15 minutu

4. jarduera – Saioa gustatu zait?

Lehenengo saioan burututako 5. jardueraren berdina.

5.saioa: 'AZKEN BULTZADA!'

Ikaskuntzaren helburu espezifikoak:

Saioa amaitzerakoan, umeak gai izango dira:

- Lehen sorospen berriak (BBB-a, DEA (desfibrilagailu automatikoa) eta *Heimlich* teknika) ezagutzeko.
- Ikasitako lehen sorospenen inguruko ezagutzak adierazteko.
- Sorospen egoera ezberdinetan sor daitezkeen emozioak identifikatzeko eta kudeatzeko.
- Lehen sorospenen garrantzia adierazteko.

1. jarduera – Bizipentxoak!

3. saioan azaldu den bezalakoa.

2. jarduera – Teoria time!

Helburuak	<p><i>Jarduera amaitzerakoan, umeak gai izango dira:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • Lehen sorospen berriak (BBB-a, DEA (desfibrilagailu automatikoa) eta <i>Heimlich</i> teknika) ezagutzeko. • Sorospen egoera ezberdinetan sor daitezkeen emozioak identifikatzeko eta kudeatzeko. • Lehen sorospenen garrantzia adierazteko.
Prozeduraren deskribapena	<p>Jarduera honetan azken lehen sorospenak (BBBa, itotzeak eta <i>Heimlich</i> teknika) irakatsiko zaizkie Power point baten bitartez (22.eranskina). Erizainak azaltzen doan heinean umei galderak botako dizkie. Modu honetan, aurretik landutako lehen sorospenak birpasatzeko lagungarria izateko ez ezik, elkarreagina egoteko ere. Aurkezpenean, arlo teknikoa azaltzeaz gain, egoera horietan senti ditzaketen emozioak eta sentimenduak ere aipatuko dira. Berrito nola senti daitezkeen egoera horietan eta zer egin edo kudeatu dezaketen egoera gogoratuko zaie.</p>
Hartzaileak	Ume talde osoa.
Baliabide materialak	<ul style="list-style-type: none"> • Proiektorea • Pantaila • Ordenagailua
Denbora	33 minutu

3. jarduera – Birpasoa!

Helburuak	<p><i>Jarduera amaitzerakoan, umeak gai izango dira:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • Irakatsitako lehen sorospenen (112rako deia, epistasia, zaurien maneia, erredurak, suteak BBB-a, DEA eta <i>Heimlich</i> teknika) ezagutzak aurkezteko.
------------------	--

Prozeduraren deskribapena	<p>Ikasitakoa birpasatzeko joko bat erabiliko da. Horretarako klasea bi taldetan banatuko da. Erdian mahai bat bi aulkiekin jarriko da. Talde bakoitzak ordezkari bat aukeratuko du. Ordezkariek erizainek botako dituzten galderei erantzuna emango diete. Horretarako, mahai erdian kokatuko den makil bat hartu behar izango dute. Hau da, erizainak galdera bota eta 'ba' esaten duenean, eskuak bizkarraldean izanik, ordezkari bakoitza ahalik eta azkarren saiatuko da makila hartzen. Azkarrena hartzen duena lehena erantzuteko aukera izango du. Taldekideekin eztabaidatu dezake erantzuna eta denbora mugatu batean erantzun beharko dute (50 segundotan). Erantzun okerra emanez gero beste taldeari aukera emango zaio erantzuteko. Ondo erantzuten badute puntu emango zaie. Puntu gehien lortzen duen taldea irabazlea izango da.</p> <p>Galderak hurrengoak izango dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> * <i>Zerekin garbitu al dezaket zauri bat?</i> * <i>Zer ez dut bota behar zauria garbitzeko?</i> * <i>Nire laguna lurlean botata aurkitu dut, nora deituko dut?</i> * <i>Zer nolako informazioa eman behar dut 112ra deitzen dudanean?</i> * <i>Zer egin behar dut arropak sutan baldin badauzkat?</i>
Hartzaileak	Umeek, bi taldetan banatuta.
Baliabide materialak	- Makila
Denbora	10 minutu

6.saioa: 'SOROSTXIKIA NAIZ!'Ikaskuntzaren helburu espezifikoak:

Saioa amaitzerakoan, umeak gai izango dira:

- Ikasitako lehen sorospen guztien ezagutzak erakusteko.
- Ikasitako lehen sorospenen trebeziak aplikatzeko.
- Lehen sorospenen aurrean jarrera positiboa aurkezteko.

1. jarduera – Aurkezpena

2. saioan egindako lehenengo jarduera guztiz bezalakoa.

2. jarduera – Lehen sorospen tailerrak!

Helburuak	<p><i>Jarduera amaitzerakoan, umeak gai izango dira:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • Sorospen egoera ezberdinak analizatzeko. • Sorospen egoera bakoitzean jarduera egokia aplikatzeko. • BBB-aren eta DEA-ren ezagutzak eta trebeziak erakusteko.
Prozeduraren deskribapena	<p>Jarduera honetan rol playing-ak eta BBB-a burutzeko materialak erabiliko dira. Umeak binaka jarriko dira eta ikasitako lehen sorospen guztien rol playing-ak burutuko dituzte. BBB-a praktikatzeko panpinak erabiliko dira. Horretarako, klasearen banaketa segun eta zenbat panpin lortzen diren izango da. Jarduera egiten duten heinean, erizainek banan-banan gainbegiratu dituzte, ondo egiten dutela ziurtatzeko edo laguntzeko. Azkenik, DEA erabiltzen erakutsiko zaie. Hau egiteko, binaka jarriko dira ere, eta banan-banan pasatuko dira DEA probatzeko.</p>
Hartzaileak	<p>Umeak, hasieran binaka banatuta. Ondoren, lortzen diren panpinen arabera, bakoitzeko gutxienez 2 pertsona.</p>
Baliabide materialak	<ul style="list-style-type: none"> • DEA • Panpinak
Denbora	<p>40 minutu</p>

3. jarduera – Kontrola!

Helburuak	<p><i>Jarduera amaitzerakoan, umeak gai izango dira:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • Landutako lehen sorospeni buruzko ezagutzak erakusteko.
Prozeduraren deskribapena	<p>Azken jarduera honetan, umeek 10 galderako testa burutuko dute. Horrek, ezagutza teorikoa ebaluatzeko balioko du. Umeek orria betetzeko 10 minutu inguru izango dute (23.eranskina).</p>
Hartzaileak	<p>Ume talde osoa.</p>
Baliabide materialak	<ul style="list-style-type: none"> • Orriak • Boligrafoak
Denbora	<p>10 minutu</p>

4. jarduera – Programa gustatu zait?	
Helburuak	<i>Jarduera amaitzerakoan, umeak gai izango dira:</i> <ul style="list-style-type: none"> • OParen erabilgarritasuna antzemateko.
Prozeduraren deskribapena	Bukatzeko, umeek OPekin izandako gogobetetasun maila ezagutuko da. Horretarako erizainak galdetegiak banatuko dizkie (24.eranskina).
Hartzaileak	Ume talde osoa.
Baliabide materialak	<ul style="list-style-type: none"> • Orriak • Boligrafoak
Denbora	5 minutu
5. jarduera – Agurra!	
Helburuak	Programari amaiera ematea.
Prozeduraren deskribapena	Umeei Sorostxikiaren pegatinak (25.eranskina) eta diplomak (26.eranskina) banatuko zaizkie oroigarri eta sari bezala.
Hartzaileak	Ume talde osoa.
Baliabide materialak	<ul style="list-style-type: none"> • Diplomak • Pegatinak
Denbora	5 minutu

5.6 Programaren aurrekontua

GIZA BALIABIDEAK						
Profesionala	OPren prestaketa orduak	OPren inpartazio orduak	Besteak (informazioa eskolei)	Orduak guztira	Hileko soldata (€)	Kostua
2 erizain*	24h	5h	2h	31h		

*Erizainarekin beste laguntzaile bat egongo da. Laguntzaile hau beste erizain bat edo erizain ikaslea izan daiteke. Gehienez 2 pertsona egotea gomendatzen da, eta bideratzen duten profesionalek aurretik programa prestatuta edukitzea ezinbestekoa izango da. Horrela, lan karga orekatuta egongo da eta programa dinamikoagoa izango da.

BALIABIDE MATERIALAK			
Materiala	Kantitatea	Unitatearen kostua	Kostua guztira
MATERIAL SUNTSIKORRA			
Umeentzako pegatinak	40		
Boligrafoak	20		
Klarionak	2		
Postontzia	1		
Jostailuzko altxorra edo kaxa txikia	2		
Giltzen bitarteko giltzarrapoa	2		
Puzlerako kaxa ertaina/handia	2		
Errotulagailuak: gorria, urdina eta horia	4		
Margoak	1		
Makila	1		
Txaleko islatzaile horia	1		
Itsasgarriak	1		

FOTOKOPIAK	Komiki marrazkiak	1		
	Emojiak	20		
	Puzzlea	2		
	Zauri baten marrazkia	1		
	Ur txorrota baten marrazkia plastifikatuta	1		
	Murala	1		
	Muraltxoaren marrazkirako testuak	1		
	Ondo/gaizki kartelak	4		
	Test orriak	20		
	Asetze orriak	20		
	Triptikoa	50		
	Kartela	20		
	Pegatinak sorostxiki	20		
	Diplomak	20		
	EKIPAMENDUA			
Bizikletako kaskoa	1			
Arbela	1			
Proiektorea	1			
Ordenagailua	1			
Pantaila	1			
Mugikorra	1			
DEA	1			
Panpinak	10			

*Adibide bezala, klasean 20 ikasle egongo balira moduan hartu da. Izan ere, klase bakoitzeko haur kopuruaren arabera materiala aldatzea izango da.

5.7 Programaren ebaluazio-plana

Ebaluazioari esker, umeek programarekiko izan duten hazkuntza prozesua neurtzea ahalbidetzen da. Honen bitartez, HP-ren helburuak lortu diren eta eboluzio bat egon den jakin daiteke. Gainera, programaren gogobetetze edo gogobetetasun maila aztertuko da, HP-ak izan ditzakeen hobekuntzak aurkitzeko.

Horretarako, alde batetik ebaluazio formatiboa erabiliko da. Ebaluazio jarrai honi esker, programaren garapenean zehar aldaketarik behar den aztertuko da.

Prozesuaren eta egituraren ebaluazioari dagokionez, umeen adina kontuan hartuz, 2. eta 4. mailan azkeneko saioan umeek aurpegi *emoji*-en bitartez saioekin izan duten asebetetzea adieraziko dute. Saioak ebaluatzeko, 3 aurpegi mota egongo dira: berdea (ongi), horia (hala-hola) eta gorria (txarto). Saioaren amaieran, *emoji*-ak postontzi batean (edo kaxa batean) botako dituzte.

Erizainek ere, saio bakoitzaren amaieran modu kualitatiboan, beraien sentrazioak eta gogobetetasuna elkarri adieraziko dizkiote eta idatziko dituzte.

Emaitzaren ebaluaziorako, antolatutako jarduerak lagungarriak izango dira. Programan zehar, umeen ikasketa-helburuak neurtzeko jarduera ezberdinak egongo dira. Alde batetik saio bakoitzaren hasieran galderak botako dira. Beste aldetik, saioan zehar zein amaieran antolatutako jardueren bitartez ikasitakoa erakutsiko dute. Hortaz, kasu honetan erizainek ebaluaketa kualitatiboa burutuko dute. Hauekin guztiarekin, erizainek emandakoa umeek barneratu duten jakiteaz gain, programaren eraginkortasuna ebaluatuko dute ere.

Beste aldetik, amaieran ebaluazio orokorarekin, ebaluazio sumatiboarekin hain zuzen ere, ondorengo programetan aldaketak egin behar diren identifikatuko dira.

Prozesuaren eta egituraren ebaluazioa jakiteko, 6. mailako umei, azken saioan inkesta pasatuko zaie. Bertan, programaren asebetetze arloak eta hobetze arloak adieraziko dituzte. Horri esker, profesionalaren jarrera, saioen edukien eta antolaketaren iritziak batuko dira.

Modu berean, irakasleek Osasun Programarekiko, orokorrean izan duten asebetetze maila ezagutzeko, 'Google formulario'-aren bitartez, programa osoaren iritzia emango dute (27.eranskina).

Programaren emaitzak ebaluatzeko, azkeneko saioan teoria ebaluatzeko 6.mailan kontrola erabiliko da (metodo kuantitatibo), eta praktika erizainek gainbegiratuko dute (metodo kualitatibo).

Beraz, programan zehar erizainak zein umeak ebaluatzaileak izango dira.

6. Bibliografia

1. Gómez H, Martínez A, Casal MC, Ballestar ML. Proyecto de investigación: Implantación de un programa de primeros auxilios para el alumnado de secundaria de Xirivella. Biblioteca Lascasas, 2015;11(4).
2. Junco I. Importancia socio sanitaria de las lesiones no intencionadas en la infancia [Internet]. Aeped.es. [2020ko azaroaren 12an aipatuta]. Eskuragarri hemen: http://www.aeped.es/sites/default/files/documentos/capitulo_1_0.pdf
3. Peden M, Oyegbite K, Ozanne-Smith J, Hyder AA, Branche C, Rahman F, et al. Informe mundial sobre prevención de las lesiones en los niños. Washington, DC: Organización Mundial de la Salud. Organización Panamericana de la Salud. UNICEF, 2012.
4. Fierro Urturi A, Vázquez Fernández ME, Muñoz Moreno MF, Alfaro González M, Rodríguez Molinero L, García Gutiérrez P. Lesiones no intencionales: factores de riesgo en seguridad vial y práctica de actividades acuáticas en adolescentes de 13 a 18 años. Rev Pediatr Aten Primaria. 2013;15(60):315-28.
5. Orton E, Whitehead J, Mhizha-Murira J, Clarkson M, Watson MC, Mulvaney CA, et al. School-based education programmes for the prevention of unintentional injuries in children and young people. Cochrane Database Syst Rev. 2016;12:CD010246.
6. España es uno de los países de Europa con menos formación en primeros auxilios. [Internet]. Semes.org. 2017 [2020ko azaroaren 12an aipatuta]. Eskuragarri hemen: <https://www.semes.org/espana-es-uno-de-los-paises-de-europa-con-menos-formacion-en-primeros-auxilios/>
7. Campañas 2007- Prevención de accidentes infantiles [Internet]. Gob.es. [2020ko azaroaren 12an aipatuta]. Eskuragarri hemen: <https://www.mscbs.gob.es/campanas/campanas07/seguridadInfantil4.htm>
8. INE. Instituto Nacional de Estadística [Internet]. Ine.es.[2020ko azaroaren 12an aipatuta] Eskuragarri hemen: <https://www.ine.es/index.htm>
9. Böttiger BW, Van Aken H. Kids sabe lives-Training school children in cardiopulmonary resuscitation worldwide is now endorsed by the World Health Organization (WHO). Resuscitation. 2015;94:A5-7.
10. Villanueva Ordóñez MJ, Rey Galán C, Crespo Ruiz F, Diaz González L, Martinez BastidaG. Análisis de una experiencia perdurable de un proyecto educativo de reanimación cardiopulmonar en un centro escolar. Emergencias. 2019;31(3):189-94.
11. Palacio Villazón R, Nonide Robles M, Carreño Morán F, Lopez Roldan L, Cao Fernández A. Proyecto "Con tus manos puedes salvar vidas." RqR Enferm Comunitaria (Revista de SEAPA). 2015 Mayo;3(2):35-43.
12. Audicana Uriarte C. Hilkortasuna Euskal Autonomia Erkidegoan [Internet]. Eusko Jaurlaritzak: Erregistroetako eta Osasun-informazioko Zerbitzua. Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza. Osasun Saila; 2020ko otsailean. Eskuragarri hemen:

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/registros_mortalidad/es_def/adjuntos/Informe-Mortalidad-2018.pdf

13. Bohn A, Van Aken H, Lukas RP, Weber T, Breckwoldt J. Schoolchildren as lifesavers in Europe - training in cardiopulmonary resuscitation for children. *Best Pract Res Clin Anaesthesiol.* 2013;27(3):387-96.
14. Ballesteros Peña S, Fernandez Aedo I, Pérez Urdiales I, Garcia Azpiazu Z, Unanue Arza S. Conocimientos y actitudes de los ciudadanos del País Vasco sobre la resucitación cardiopulmonar y los desfibriladores externos automatizados. *Med Intensiva.* 2016;40(2):75-83.
15. De Buck E, Van Remoortel H, Dieltjens T, Verstraeten H, Clarysse M, Moens O, et al. Evidence-based educational pathway for the integration of first aid training in school curricula. *Resuscitation.* 2015;94:8-22.
16. Kitamura T, Nichiyama C, Murakami Y, Yonezawa T, Nakai S, Hamanaishi M, et al. Compression-only CPR training in elementary schools and student attitude toward CPR. *Pediatr Int.* 2016;58(8):698-704.
17. Banfai B, Pek E, Pandur A, Csonka H, Betlehem J. "The year of first aid": Effectiveness of a 3-day first aid programme for 7-14-year-old primary school children. *Emerg Med J.* 2017;34(8):526-32.
18. Osakidetza. Urgencias sanitarias en la escuela. Guía para centros docentes. Vitoria-Gasteiz. Eusko Jaurlaritza. 2015.
19. Cruz Roja Española. Clases de primeros auxilios, ¿por qué son importantes? [Internet]. 2018. [2020ko azaroaren 12an aipatuta].
20. Wilks J, Pendergast D. Skills for life: First aid and cardiopulmonary resuscitation in schools. *Health Educ J.* 2017;76(8):1009-1023.
21. Comité de Seguridad y Prevención de Lesiones no intencionales en la Infancia [Internet]. Aeped.es. [2020ko azaroaren 12an aipatuta]. Eskuragarri hemen: <https://www.aeped.es/comite-seguridad-y-prevencion-lesiones-no-intencionadas-en-infancia>
22. Lçopez Herce J, Rodríguez Núñez A, Maconochie I, Van de Voorde P, Biarent D, Eich C. et al. Actualización de las recomendaciones internacionales de reanimación cardiopulmonar pediátrica (RCP): recomendaciones europeas de RCP pediátrica. *Emerg.* 2017; 29(4):266-281.
23. Nueva L. La importancia de saber primeros auxilios. 2014.
24. Soto P, Masalan P, Barrios S. LA EDUCACIÓN EN SALUD, UN ELEMENTO CENTRAL DEL CUIDADO DE ENFERMERÍA. *Rev Med Clin Condes.* 2018;29(3):288-300.
25. Ortiz B, Ruedas YM. ENSEÑANZA DE PRIMEROS AUXILIOS BÁSICOS Y PREVENCIÓN DE ACCIDENTES A TRAVÉS DE JUEGOS DIDÁCTICOS QUE FAVOREZCAN EL DESARROLLO DE COMPETENCIAS CIUDADANAS: COGNITIVAS, EMOCIONALES, COMUNICADORAS E INTEGRADORAS EN LOS NIÑOS DE 5º DE LA ESCUELA NORMAL SUPERIOR OCAÑA SEDE EL LLANO [Trabajo de fin de grado

- en Internet]. Colombia: Escuela Normal Superior de Ocaña; 2018 [sarbidea: 2020ko azaroaren 12an]. Eskuragarri hemen: <http://www.enso.edu.co/biblionline/archivos/2997.pdf>
26. Petris AO, Cimpoesu D, Pop C, Tatu-Chitoiu G. Optimal teaching of cardiopulmonary resuscitation in schools: better education, more lives saved. *Rev Med Chir Soc Med Nat lasi*. 2016;120(3):522-9.
 27. Real Decreto 126/2014, de 28 de febrero, por el que se establece el currículo básico de la Educación Primaria. *Boletín Oficial del Estado*, nº51 (01-03-2014).
 28. Decreto 236/2015, de 22 de diciembre, por el que se establece el currículo de Educación Básica y se implanta en la Comunidad Autónoma del País Vasco, nº9 (15-01-2016).
 29. Urbanos RS, Lopez B. Sostenibilidad del sistema sanitario y contribución de los servicios de urgencias. *Emer*. 2015;27:197-203.
 30. Asociación Catalana de Enfermería y Salud Escolar. *Enfermeras/os escolares: habilidades, competencias y funciones*. [Internet] 2019 [2020ko azaroaren 12an aipatuta].
 31. Mora L. Los principios éticos y bioéticos aplicados a la calidad de la atención en enfermería. *Rev Cubana Oftalmol*. Junio de 2015.
 32. Baeta S, María F. Cultura y modelo biomédico: reflexiones en el proceso de salud-enfermedad. *Comunidad y Salud*. 2015;13(2):81-83.
 33. Gutierrez D, Martinez E, Chaidez B, Arreola E, Fernandez K, Madera K, *et al*. *Estrategias para el Aprendizaje: Una Visión Cognoscitivista*. 1ªed. Universidad Pedagogía de Durango. Mexico. 2018.
 34. Sierra Escobell C. *Teoría Social del Aprendizaje de Albert Bandura*. Universidad Antropológica de Guadalajara. 2016;1:1-15.
 35. Keith DA, Warzak W, Greger N, Bernotas T, Huseman C. Psychosocial Adjustment of children with isolated growth hormone deficiency. *Children's Health Care*. 2010; 22(1): 61-72.
 36. Calle C. El paciente proactivo. *La mirada maestra de la actualidad*. *El Médico*. 2014; (1151): 20-21.

7. Eranskinak

1.eranskina: SINONIMO ETA HITZ GAKOEN TAULA

Bilaketaren helburua: umeei zuzendutako lehen sorospenen inguruko programen eraginkortasuna identifikatzea.

Kontzeptu nagusia	Lengoaia naturala		Lengoaia kontrolatua (deskriptoreak)
	Sinonimoa	Ingelesez	
Lehen sorospenak	<ul style="list-style-type: none"> • Primeros auxilios • Soporte vital básico • Resucitación cardiopulmonar 	<ul style="list-style-type: none"> • First aid • Basic life support • Cardiopulmonary Resuscitation 	<p>Medline (MeSH): First aid, cardiopulmonary Resuscitation, out-of-Hospital Cardiac Arrest</p> <p>CINAHL (Descriptor de CINAHL): First aid, Bystander CPR, 'resuscitation, cardiopulmonary'</p> <p>PsycINFO (Thesaurus): first aid.mp, basic life support.mp (ez delako agertzen), CPR</p> <p>Cochrane Database (MeSH): First aid, resuscitation cardiopulmonary, (basic life support ez da agertzen)</p> <p>CUIDEN: primeros auxilios, soporte vital básico, <i>resucitación cardiopulmonar</i> ez da agertzen.</p> <p>EMBASE (EMTREE): first aid, cardiopulmonary resuscitation.mp, basic life support</p>
Lehen hezkuntzako umeak	<ul style="list-style-type: none"> • Niños • Niños en etapa escolar 	<ul style="list-style-type: none"> • Child (6-12 urte) • Children • Schoolchildren 	<p>Medline (MeSH): Child</p> <p>CINAHL (Descriptor de CINAHL): Child</p> <p>PsycINFO (Thesaurus): child.mp (ez delako agertzen)</p> <p>Cochrane Database (MeSH): Child</p> <p>CUIDEN: niños</p> <p>EMBASE (EMTREE): child, schoolchild</p>

<p>Osasun hezkuntza</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Educación para la salud 	<ul style="list-style-type: none"> • Health education 	<p>Medline (MeSH): health education</p> <p>CINAHL (Desciptores de CINAHL): health education</p> <p>PsycINFO (Thesaurus): health education</p> <p>Cochrane Database (MeSH): education, health education,</p> <p>CUIDEN: educación para la salud</p> <p>EMBASE (EMTREE): health education</p>
<p>Ikaskuntza</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Formación 	<ul style="list-style-type: none"> • Training 	<p>Medline (MeSH): training.mp.</p> <p>CINAHL (Desciptores de CINAHL): training.mp</p> <p>PsycINFO (Thesaurus): training</p> <p>Cochrane Database (MeSH): training (ez da agertzen)</p> <p>CUIDEN: formación</p> <p>EMBASE (EMTREE): training</p>
<p>Eskola</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Colegio • Escuela 	<ul style="list-style-type: none"> • School 	<p>Medline (MeSH):</p> <p>CINAHL (Desciptores de CINAHL): schools</p> <p>PsycINFO (Thesaurus): schools</p> <p>Cochrane Database (MeSH): schools</p> <p>CUIDEN: escuela</p> <p>EMBASE (EMTREE): school</p>

2. Eranskina. BILAKETA-TAULA

Data-basea	Bilaketa ekuazioa	Emaitzak		Oharrak
		Aurkitutakoak	Baliagarriak	
Medline 1	[First aid] AND [child] AND [(health education) OR (training.mp)]	137	-	- Bilaketa eraginkorra izan arren, emaitzak gehiago murrizteko, dataren filtroa pasatuko da: 2011-2021.
Medline 2	[First aid] AND [child] AND [(health education) OR (training.mp)] Mugak: 2010tik 2020erako artikuluak	50	7	- Artikulu asko ez zioten helburuari erantzuten. Izan ere beste gai batzuk artatzen zituzten, edo programak umeak ez ziren beste pertsona batzuentzat zuzenduta zeuden. - Artikulu gehiago aurkitzeko helburuarekin, ekuazioa zabalagoa egingo da, "out-of-Hospital Cardiac Arrest" eta "cardiopulmonary resuscitation" tesaurioak gehituz.
Medline 3	[(First aid) OR (cardiopulmonary resuscitation) OR (out-of-hospital cardiac arrest)] AND [child] AND [(health education) OR (training.mp)]	394	-	- Bilaketa eraginkorra izan arren, emaitzak murrizteko mugak jarriko dira, hala nola, data filtroa: 2011-2021.

Medline 4	[(First aid) OR (cardiopulmonary resuscitation) OR (out-of-hospital cardiac arrest)] AND [child] AND [(health education) OR (training.mp)] Mugak: 2010tik 2020erako artikuluak	198	-	- Bilaketa eraginkorra izan da, hala ere, oraindik emaitza asko atera dira. Horregatik, berriz murrizteko asmoz, "abstract" filtroa pasatuko da.
Medline 5	[(First aid) OR (cardiopulmonary resuscitation) OR (out-of-hospital cardiac arrest)] AND [child] AND [(health education) OR (training.mp)] Mugak: - 2010tik 2020erako artikuluak - Abstract	180	8	- Bilaketa eraginkorra. - Hala ere, artikulu batzuk gaia artatu arren, adinak ez zetorren bat. - Artikulu asko ez zioten helburuari erantzuten. Izan ere, ez zuten gai berdina artatzen. - Batzuk beste hizkuntzatan zeuden.
CINAHL 1	[(first aid) OR (bystander CPR) OR (resuscitation, cardiopulmonary)] AND [child] AND [(health education) OR (training)]	395	-	- Emaitza asko atera dira. - Ekuazio berria sortzen da, emaitza murrizteko asmoz. - Tesauro berria sartuko da, "schools", artikulu espezifiko gehiago aurkitzeko asmoz.


CINAHL 2	[first aid] AND [child] AND [training] AND [schools]	51	6	<ul style="list-style-type: none"> - Bilaketa eraginkorra - Artikulu asko errepikatuta zeuden. - Beste asko, ez zioten helburuari erantzuten.
CUIDEN	[(Soporte vital básico) OR (Primeros auxilios)] AND [Niños] AND [(Educación para la salud) OR Formación]] AND [Escuela]	80	6	<ul style="list-style-type: none"> - Bilaketa eraginkorra - Hala ere, artikulu gehienak ez zioten helburuari erantzuten.
PsycInfo 1	[(first aid) OR (basic life support) OR (CPR)] AND [child] AND [(health education) OR (training)] AND [schools]	0	-	<ul style="list-style-type: none"> - Bilaketa ez eraginkorra. - Tesauro batzuk kentzen dira, emaitzak aurkitzeko asmoz.
PsycInfo 2	[First aid] AND [child] AND [training]	6	0	<ul style="list-style-type: none"> - Ez diote helburuari erantzuten.
COCHRANE 1	[(First aid) OR (cardiopulmonary resuscitation)] AND [child] AND [health education] AND [schools]	92	-	<ul style="list-style-type: none"> - Emaitzak murrizteko asmoz, dataren filtroa pasatuko da.

COCHRANE 2	[(First aid) OR (cardiopulmonary resuscitation)] AND [child] AND [health education] AND [schools] Mugak: 2010tik 2020erako artikuluak	78	-	- Ez diote helburuari erantzuten. - Beste ekuazio batekin saiatuko da, tesauro gutxiago jarriko dira.
COCHRANE 3	[First aid] AND [child] AND [training] Mugak: 2010tik 2020erako artikuluak	127	2	- Bilaketa eraginkorra. - Ez diote erantzuten helburuari
EMBASE 1	[(First aid) OR (cardiopulmonary resuscitation) OR (basic life support)] AND [(child) OR (schoolchildren)] AND [(health education) OR (training.mp)]	177	-	- Emaitzak murrizteko asmoz, data filtera pasatuko da.
EMBASE 2	[(First aid) OR (cardiopulmonary resuscitation) OR (basic life support)] AND [(child) OR (schoolchildren)] AND [(health education) OR (training.mp)]	94	14	- Bilaketa eraginkorra - Hala ere asko ez zioten helburuari erantzuten.

	Mugak: 2010tik 2020erako artikuluak			
Scielo 1	[first aid] AND [(child) OR (schoolchildren)]	598	-	- Eraitza asko direnez, emaitzak murrizteko dataren eta hizkuntzaren filtroa (Gaztelera) pasatuko dira.
Scielo 2	[first aid] AND [(child) OR (schoolchildren)] Mugak: - 2010tik 2020erako artikuluak - Gaztelera	1	0	- Ez dio helburuari erantzuten. - Eraitza gehiago izateko, ekuazio berria sortzen da, tesaurio sinpleak ezarriz eta mugarik gabe.
Scielo 3	[first aid] AND [program]	35	0	- Ez diote helburuari erantzuten.
RNAO	Efectiveness first aid program	0	0	- Bilaketa ez eraginkorra
Science Direct 1	[first aid] AND [program] AND [children]	95.040	-	- Eraitza kopurua murrizteko, ekuazio berria sortuko da, tesaurio espezifiko gehiago sartuz.
Science Direct 2	[effectiveness] AND [first aid] AND [program] AND [(children) OR (schoolchildren)]	17.799	-	- Bilaketa ez eraginkorra, emaitza asko atera dira. - Eraitza kopurua murrizteko, ekuazio berria sortuko da.

Science Direct 3	[effectiveness] AND [first aid] AND [program]	30	0	<ul style="list-style-type: none"> - Bilaketa eraginkorra. - Baina, guztiak ez zioten helburuari erantzuten. - Ekuazio berria sortuko da. kasu honetan ekuazio berria gazteleraz egingo da.
Science Direct 4	Programa de primeros auxilios	260	-	<ul style="list-style-type: none"> - Emaitzak murrizteko, dataren filtroa pasatuko da.
Science Direct 5	Programa de primeros auxilios Mugak: 2010tik 2021erako artikulak	183	1	<ul style="list-style-type: none"> - Bilaketa eraginkorra - Gehienak ez zioten helburuari erantzuten, beste gai batzuei buruz hitz egiten zutelako.

3. Eranskina. FLUXU DIAGRAMA



4. Eranskina. IKERKETA KUANTITATIBOKO AZTERKETEN IRAKURKETA KRITIKORAKO GIDOIA

Artikulua:			
Banfai B, Pek E, Pandur A, Csonka H, Betlehem J. "The year of first aid": Effectiveness of a 3-day first aid programme for 7-14-year-old primary school children. Emerg Med J. 2017;34(8):526-532.			
Helburuak eta hipotesiak	Helburuak edo/eta hipotesiak argi eta garbi zehaztuta daude?	Bai HH Ez	Zergatik? Izenburuan eta sarrera atalean helburua azaltzen delako, PICO formatua erabiliz: P: 7-14 urte bitarteko 'Inner-city'(Hungria) lehen hezkuntza eskolako umeak. I: 'The year of first aid', 3 eguneko lehen sorospen programa. C: interbentziorik ez egitea. O: lehen sorospenen inguruko ezagutzak eta trebeziak handitzea.
Diseinua	Erabilitako diseinu-mota egokia da ikerketaren helburuari dagokionez (helburuak edo/eta hipotesiak)?	Bai HH Ez	Zergatik? Alde batetik artikulua ikerketa longitudinal kohortekoa dela adierazten du. Hala ere, ikerketan interbentzioa ematen da, lehen sorospeni buruzko programa hain zuzen ere. Bertan, aurretik ebaluaketa bat egiten da, interbentzioa burutu eta berriz ebaluatzen da. Gainera, ez daude talde kontrolik, baizik eta talde bakarra (kasu taldea). Hori dela-eta berez, ikerketa mota zuzenagoa, analitiko pre-esperimental izango litzateke. Bestalde, nahiz eta artikuluan ikerketa mota hori aipatu, benetan erabilitako ikerketa mota egokia da. Izan ere, programaren ebaluaketa burutzeko aukera ematen du. Aitzitik, talde kontrolik ez izatean datuak galtzea eragin dezake, emaitzetan eragina izanez.
	Esku-hartze azterlan bat edo azterlan esperimental	Bai HH Ez	Zergatik? Interbentzioaren, kasu honetan programaren, azalpena 'Training program' atalean ematen da. Programa 3 saioz

	<p>bat bada, esku-hartzea egokia dela ziurta dezakezu? Esku-hartzea sistematikoki ezartzeko neurriak jartzen dira?</p>		<p>osatuta dago, saio bakoitzak 45 minutuko iraupena izanik. Saioak 3 aste jarraian gauzatzen dira, saio bakoitza astean behin burutuz. Saioetan hurrengo puntuak lantzen dira: oinarrizko bizi euskarria, desfibriladore automatikoa, konorterik gabeko pazientearen kudeaketa, hemorragien kudeaketa eta emergentziarako deia. Programan ezagutza zein trebetasuna lantzen dira, eta horiek ebaluatzeko 'checklist'-ak eta ebaluazio metodoak ere erantsita eta azalduta daude. Gainera, adin talde bakoitzaren beharretara eta trebetasunetara egokitzen direla aipatzen dute. Bestalde, programa burutu zutenek paramedikoak ziren.</p> <p>Hala ere, ez dute aipatzen bideratzaileek aurretik trebatu izan direnik. Ezta, saio bakoitza zehazki nola antolatu ziren ere, esaterako, nola ematen zen, aurkezpen grafikorik egon zenik...</p>
Populazioaren kontzeptua eta lagina	<p>Populazioa identifikatu eta deskribatu egin da?</p>	<p>Bai HH Ez</p>	<p>Zergatik? Ikerketak dioen bezala, partehartzaileak 7-14 urte bitarteko 'Inner-city'-ko lehen hezkuntza eskolako umeak ziren. Hasieran, 607 ume bildu zituzten, baina horietatik 25 kanporatu ziren (saio guztietan ez egoteagatik eta probaren bat ez gainditzeagatik). Hortaz, guztira 582 ikasle geratu ziren (317 neska eta 265 mutil); horietatik 75 ume aurretik beste lehen sorospen irakaskuntza batean egon ziren. Bestalde, gurasoen baimenik ez edukitzea kanporatzen irizpide bezala hartzen dela.</p>
	<p>Laginketa-estrategia egokia da?</p>	<p>Bai HH Ez</p>	<p>Zergatik? Kasu honetan lagina-estrategia zalantzazkoa da. Alde batetik, barne hartu zituzten adin tartea betetzen zuten umeak. Hala ere, ez du ezer aipatzen eskola zehatz horren aukeraketari buruzko zergatia.</p>

			<p>Horrek barne zein kanpo baliagarritasunean eragina izan dezake. Izan ere, alborapenak estrapolatu daitezke ezaugarri berdinak dituzten umeetan. Gainera, komentatzen dute herrialdean bertan adierazgarritasun eza izan dezakeela.</p> <p>Bestalde, kasu honetan, honek ez du emaitzetan arazo esanguratsurik adierazten.</p>
	<p>Laginaren neurria edo azterlanean parte hartu behar duten kasuen edo pertsonen kopurua behar bezala kalkulatu dela adierazten duten seinaleak daude?</p>	<p>Bai HH Ez</p>	<p>Zergatik? Ez du laginaren neurri buruzko azalpenik ematen. Honek, emaitzetan eragina izan ditzake.</p>

<p>Aldagaiaren neurketa</p>	<p>Datuak behar bezala neurtu direla ziurta dezakezu?</p>	<p>Bai HH Ez</p>	<p>Zergatik? Datuak neurtzeko galdetegiak erabiltzen dira. Aurreko ikerketa batzuekin konparaketa egiten dute eta berezko galdetegia sortzen dute. Galdetegiak, galdera irekiak zein itxiak ditu, guztira 10 item. Izan ere, ezagutza maila hobeto erakusteko aukera ematen du. Eranskinetan galdetegia osorik agertzen da azalduta. Ezagutza neurtzeaz gain, datu demografikoak neurtzeko, beste galdetegi baten bitartez egiten dute, guztira 8 item. Galdetegiak kode baten bitartez identifikatzen dira, anonimoa izanik. Azkenik, trebetasunak neurtzeko beste baliabide batzuk erabiltzen dira. Hala nola, BBB-a neurtzeko programa bat, 'AMBU Man W model with AMBU CPR Software', hain zuzen ere. Beste trebeziak 'checklists' batzuekin neurtzen dira. Hauek eranskinetan ondo azaltzen dira. Trebezien eskakizunak azaltzeaz gain, galdetegien erantzunak ere azaltzen dira. Hau guztiaz gain, neurketak egiteko umeek banan-banan gela pribatu batean burutzen zuten. Sortutako galdetegia berezko baliozkotasunik daukan jakin ez arren, erabilitako matrizearekin ('checklists') lotura dauka, eta honek Europako Berpiztearen Kontseiluak emandako arauekin bat datoz.</p>
------------------------------------	--	--------------------------	---

Alborapenen kontrola	<p>Azterlana eraginkortasuneko edo harremaneko den:</p> <p>Esku-hartze eta kontrol taldeak nahaste-aldagaiak dagokienez homogeneoak direla ziurta dezakezu?</p>	<p>Bai</p> <p>HH</p> <p>Ez</p>	<p>Zergatik? Kasu honetan ez dago talde kontrolik. Kontrolatzen dituzten parametroak hurrengoak dira: adina, pisua (kg), altuera (cm), gorputz masa indizea (GMI) eta lehen sorospeni buruzko aurreko esperientziak. Gainera, ANOVA eredu lineala erabiltzen dute ezagutzarekin zein trebetasunarekin erlazioa frogatzeko. Bestalde, informazioaren zabalkundea ez dute kontrolatzen. Hau da, umeei beste umeei informazioa kontatzea.</p>
